Bujideferre

Demain ils mangeront
du gato por liebre
et en suivant aussi
chevreuil devenu chèvre.

IX. Jelkhaldia: akabaillosa / IX. Repas de Fin de Chasse

**(Ahaidea. Ligetxen soldadoen kantorea. Kantatzera noazü bi berset berrien)
Sur l'air de Liguets, ou Markesaren alaba, des vers nouveaux**

(Mahain baten ungiurian bazkalondo)

Kantatzera noazü ihizlari maite
bersetetan gezürrik erran ezpeitaie
urtarilarekin zaikü negiaren helzte
hotza ibarretan ta, mendian elhürte.

Xilomaite huntan beikirade bildü
eztügi horregatik gosea ohiltü
Etzeko andereak egim düi apaidü
hun egitekoa kostüma bat beiti.

Lehenik ihizea ez den aragia
ohoratü dizügü xerri saiheskia
ardoaz, idor hori ederki bustia
aisa izan beitzaiükü horren irestia.

Un après-dîner autour d'une table

Amis chasseurs je vais chanter
car en vers on ne peut mentir
en janvier l'hiver est arrivé
froid dans la vallée, neige aux sommets.

Réunis au restaurant Chilomaite
nous n'avons pas pour autant chassé la faim
la patronne a fait un repas
car elle a coutume de bien faire.

Nous avons d'abord honoré une viande
qui n'est pas gibier de la côte de porc
il nous a été facile d'avaler
ce mets sec arrosé de vin.

Bigerrenik erbia Pettek ekarria
bazian gozo drole ta harrigarria
bena bigerren ardo bat beita pizgarria
ezteikü hala ere hautsi egarria.

Hirugerrenik orkatza jan nahi günian
etzen ontsa ererrik behar den günian
gük eho hura beno gizenago zian
sükaltian egoiteak gizenütü beitzian.

(Ager Muñuna eta Pitzitzi, lehena ahuntz maska batekin, bestea gatü batena

Teatre aitzinean lehenik mintza, goiti joan gero)
Paraissent Muñuña avec un masque de chèvre et Pitzitzi avec un masque de chat
Ils parlent d'abord devant la scène puis montent

(Muñuña, ahuntz mintzoz)

Ikhusi düna Pitzitzi
ene alhaba Mañaña
goizan ostatü ondoan
alhen ützi dinat anaña.

Akher zikin batekilian
ez ote zaikü ezkapü
ernari bada holaxet
harentako date tant pis.

(Biak teatreala igain, ihizlariak so)
(Pitzitzi miau mintzo batekin)

Maleruski behar deiat
erran zer düdan ikhusi
ostatüko kozinersa
düala alhaba degoilli.

En second le lièvre apporté par Pierre
avait un goût drôle et surprenant
mais comme un second vin est excitant
il ne nous a brisé la soif.

En troisième nous voulions notre chevreuil
il n'était pas bien rôti au bon endroit
il était plus gras que celui que nous tuâmes
le séjour à la cuisine dut le faire engraisser.

Muñuña d'une voix chevrotante

As-tu vu Pitzitzi

ma fille Mañaña
ce matin je l'ai laissée
à brouter la diablesse.

N'aurait-elle pas fugé
avec quelque sale bouc
si elle sort pleine de cela
tant pis pour elle.

Les deux montent sur la scène, les chasseurs regardent
Pitzitzi d'une voix miaulante

Il faut que je dise hélas
ce que j'ai vu
la cuisinière du restaurant
a décapité ta fille.

(Muñuña)

Gaixo Pitzitzi maitea
erranen deiat egia,
kozinersa horrek deiala
dohan ezarri semea.

Muñuña

Pauvre cher Pitzitzi
je dois te dire la vérité,
que la cuisinière a mis
ton fils en daube.

(Biak)

Alo arrren jente hunak
heben ziden ihizlariak
nahi gabez izan zide
gathü ta ahüntz jaleak.

Ensemble

Allons braves gens
chasseurs ici présents
malgré vous avez été
mangeurs de chat et de chèvre.

(Jalki etxekanderea)**(Antton)**

Etxekandere xotila
ekarzü hona khuntia
aurthenko gure Akabaillosa
izanen da khuntatia.

Antoine

Adroite hôtelière
apportez nous la facture
le Repas de Fin de chasse de cette année
sera bien raconté.

Ardoak phakatüren tügu
nahiz ahülkka izan diren
bena txitxia zure khostü
ezpeitügü hon ediren.

Nous paierons les vins
bien qu'ils aient été assez faibles
mais la viande à votre compte
car nous ne l'avons pas trouvée bonne.

(Kozinersa)

Nola hainbeste lan hartirik
e'nüzie phakatü nahi?
Ordainez hartüko deitziet
arropa horik zien bahi.

La cuisinière

Comment après tant de peine
vous ne voulez pas me payer.
En échange je prendrai
vos vêtements en guise de gages.

(Antton)

Kasu emazte faltsia
ezturrek salhatiko zütie
Muñuñak eta Pizitzik
hümeak galdü dütie.

(Jenteer)

Ezitiela arrenküra
gaxo jentiaak harzara
herri hontan galtzen bada
ahüntz ta gathü arraza.

(Khanta Paradisen gathia)

Paradisen gathüa, oren tristean sorthüa
Salazar armatürük haren ehailea,
beste bi lagünekim dobatan jalea,
dobatan jalea.

Gathüa zen marrantia, zahar eta itsusi;
Bazüan zazpi urthe jaten züala xixari
Barbalot, süskandera, arratöa berhiki
etzena greügarri.

(Debrüxarrak)

Beharriak eta begiak
edertarzüinari zabalik
bi ahoak eta üzkiak
plazerrari idekirik
arrenkütrak baztertürik
gozezazie ahaloröz. Halabiz!

Antoine

Attention femme fausse
les os vous trahiront
Muñuña et pizitzi
ont perdu leur progéniture.

Au public

Ne vous inquiétez pas
braves gens si dorénavant
en ce pays se perd
la race des chèvres et des chats.

Its chantent «le chat de Paradis, chant traditionnel

Le chat de Paradis naquit en triste heure
Salazar armé fut son assassin
avec deux camarades ils le mangèrent en daube
mangèrent en daube.

Le chat était catarrheux, vieux et laid
il y avait sept ans qu'il ne mangeait que vers
insectes, lézards, cadavres de rats
n'était-ce pas écoeurant.

Les oreilles et les yeux
ouverts à la beauté
les deux bouches et les derrières
ouverts au plaisir
écartant les soucis
jouissez si possible. ainsi soit-il!

X. Azken ephaika: justizia / X. Le dernier: jugement

(Jüjü Stissia sar eta mintza)

Ni niz Jüse Tizia
tribunal buruzagia
bi abokatsa horiekin
Jakinen dügü egia.

Juju Stisse entre et parle

Je suis Juju Stisse
président du tribunal
avec ces deux avocats
nous saurons la vérité.

(Laberde mintza)

Berdeen izenean beiniz
zier züizenki mintzatzen
ikusirenko düzie
zer phena düdan galhatzen.

Parle Maître Laverte

Puisque au nom des Verts
je vous parle directement
vous verrez sûrement
quel châtement je demande.

Inizlari debrü horiek
jan dezen denek Canigou
eta hobeki iresteko
edan dezatela ardu.

Que ces diables de chasseurs
mangent pâté de chien
et pour mieux avaler
qu'ils boivent du vin.

(Latiro mintza)

Inizlarien izenean
hitzegiten beteiziet
badakit zer merexi diien
dans leur verre et dans leur assiette.

Parle Maître Latire

Or au nom des chasseurs
je m'adresse à vous
je sais ce qu'ils méritent
dans leur verre et dans leur assiette.

Kondena bite berdeak
hura hütsik edatera
eta jateko bakarra
astün zoparen jatera.

Que soient condamnés les Verts
à ne boire que de l'eau
et pour seule nourriture
de la soupe d'orties.

(Jüü Stissaren sententzia)

Le tribunal modernisé
sans avoir délibéré
sans écouter les accusés
va tous vous condamner.

la plainte sera déboutée
et les dépens à deux seront payés
Ala jinkoa Perjiou! vous apprendrez
ce qu'il en coûte de plaider.

Hau da ene azken sententzia
berdeek eros bezе antzera
eta ihizlari lagünak
bihoatza antzera ferratzera.

Sentence de Juju Stisse

(Gaurkotu epaitegiak
ongi ebatzi ondoan
errudunak entzun gabe
denak zigortuko ditu).

(Kexa baztertuko dugu
eta gastuak bieқ ordainduko
Alajinkoa! Bai Jupiter! ikasiko duzue
pleteiatzeak zer kostu duen).

Voilà ma dernière sentence
que les Verts achètent des oies
et que les chasseurs associés
aillent ferrez ces oiseaux.

(Südürgorriek lürra jo eta Üzküberdeek nigar egin)

Les Nez Rouges tapent le sol du talon, les Culs Verts en larme

(Denak erretira)

(Azken peredikia)

Entziün tützien bersetak
konkor dira ta txainkiak
ezpeita gure ogenez
ezpadirade haintiak.

Beretegileak maleruski
ez dti sobera asmati
jenteak diren bezala
badirade mintzatti.

Tous sortent

Epilogue

Les vers que vous avez entendus
sont bossus et boîteux
ce n'est pas de notre faute
s'ils ne sont pas fameux.

Le versicoteur hélas
n'a guère imaginé
et comme les gens s'expriment
il les a fait parler.

Le bétail des écologistes carnivores
étant empoisonné
et le gibier de nos chasseurs
étant malade.

Nous irons aux cayolars
sous le Pic d'Orhy
tous nous rassasier
de l'herbe douce de là-haut.

Plainte de gens éceurés

Le nouveau vin de Bordeaux
se fait sans raisin
Nous irons à Ahuzki
nous saouler de bonne eau.

Cris de dégoût

De l'avis de l'écrivain
il dit aux uns aux autres
qu'entendent les adversaires
que ce soit Senjosse ou Wechter.

Trop c'est trop
le désert naît
lorsqu'il n'a plus de gibier
ou lorsqu'il y en a trop.

Vous venez de voir
présenté en nouvelle mode
ce qui nous est connu
comme une course asine.

Ekolo aragijaleen
kabateak pozoatirik
eta gure ihizlarien
ihiziak eritirik.

Alkharrekin joanen gira
Orhipeko olhetara
hanko belhar gozoez
denak oro alhatzera.

(Jente greütü zinkuria)

Bordeleko ardoberria
mahatsik gabe da egiten
Joanen gira Ahuzkira
hanko hur hunez aseren.

(Greütien oihüak)

Egilearen aholkütz
bai bater eta bester
entzün dezen bi etsaiek
Sen José edo Wechter.

Sobera sobera delako
desertia sortzen dela
ihize gabe edo bestela
ihize sobera balin bada.

Egün ikhusi düzie
moda berrian egina
asto laster izenarekin
ezagützen dügüna.

Hau ezta astokeria
 astoak ezti ogenik
 bena bai jentekeria
 iniizengatik eginik.

Azkenik pharka astoa
 zaldia beno argiagoa
 nahi diñanaren egiteko
 gogorra beitiük kaskoa.

Adio Ekolor eta Ihizlor
 ahal bezala eman dügü
 bena xuri ta beltz beno
 nahaskolor heltü zaikü.

Eztükügü aski sosik
 zier orkatz janarazteko
 kontia igor ezazüe
 Voynetsari pakarazteko.

Nahiago badüzie
 behi erotütik asež
 gük ez zütiegü lagintükö
 nahiago ginäte hil gosež.

(Kanta)

(Bat'DAF ahaidean)

Xiberoan guti girade
 bena zoin maltzurrago
 Parisirik jin küso horiek
 ez gütie kanbiatükö.

Ceci n'est pas une ânerie
 car les ânes n'ont pas ce tort
 mais bien une humainerie
 écrite sur la chasse.

Pardon à toi l'âne
 plus clairvoyant que le cheval
 tu as la tête dure
 pour faire ce que tu veux.

Adieu Ekolor et Chasselor
 nous avons joué comme nous avons pu
 mais plus que noir et blanc
 nous est sorti Mélémélocolor.

Nous n'aurons pas assez d'argent
 pour vous nourrir de chevreuil
 envoyez donc la facture
 pour que la paye Madame Voynet.

Si vous préférez
 vous bourrer de vache folle
 nous ne vous accompagnerons pas
 nous préfererions la faim.

Sur l'air des Bat'Daf, paroles nouvelles

En Soule nous sommes peu nombreux
 mais à qui plus fripouilles
 Ces épouvantails venus de Paris
 ne nous changeront pas.

Behar ere badititigi
ihizlari eta ekolo
denbora dündü dūgūnean
erri eginarazteko.

Eta gero! eta Gero!
tūroa dela haientako
eta apaidia guretako.

Hun deikūla!
Izan ontsa!

Heureusement nous avons
des chasseurs et des écolos
quand le temps est couvert
pour nous faire rire.

Et après! Et après
que les tirs soient pour eux
et le repas pour nous.

Grand bien nous fasse!
Portez-vous bien!

LAPURDIKO ATURRIKO EUSKARA: BARDOZEKO Ū BOKALAZ¹

Kristina Encinar San Martin

Laburpena

Lan honetan aurkezten dut *ū* bokalari buruz Bardozen (Lapurdin) egin-dako inkesta linguistiko baten emaitza nagusien interpretazioa. Aipaturiko inkesta horren arabera, Bardozen *ū* bokala berezkoa izan arren, egunak aurrera egin ahala, zailagoa da bardoztarren ahotan entzutea. Ezaguna da Lapurdiko iparrekialdeko biztanle batzuek diotela Bardozeko euskara «nahasia» dela, eta gainera, haien ustez hori ez dela «un bon language». Horregatik, inkesta horretan, galdetegi linguistikoarekin batera, saiatu naiz beste alderdi horri buruzko informazio eta iritziak ere biltzen, ez bakarrik Bardozen, baizik eta baita Mugerren eta Beskoitzen ere. Lan honek eskaintzen ditu *ū* bokalaren egoera eta sustraitzea zein den ezagutzeko ideiak, bokal horren gertaeraren testuinguruari buruzko oharra eta baita *ū* bokalaren agerpena edo gabezia baldintzatu dezaketen faktoreen identifikazioari buruzko gogoetak ere. Izan ere, *ū* bokala bezalako ezaugarriengatik, Lapurdiko Bardozeko euskara interesgarria da Iparrekialdeko nahiz Euskal Herriko euskal hizkeren sailkapena deskribatzeko.

1. SARRERA

1.1. Galdeketa-aren abiaburu orokorra eta artikuluko honen helburu nagusia

Aturri ibaia Pirinioetako tontorrik garaieneta jaiotzen da, eta bere besoak Lapurdiko ipar-ekialdea bustitzen du. Bertan kokatzen da *Aturriko euskara* –izendapenaren inguruko eztabaida ikerlan honetan aipatu gabe utziko dut–.

Aturriko euskarak euskalkien mapa marrazteko laguntza handia ekar dezakeela esan ohi da, baina Aturriko euskararen beraren zatiketetan sakontzeak ere ez luke zeregin horretan argi gutxi eskainiko. Izan ere, interesekoak dira

¹ Aturriko berriemaile eta laguntzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiet niregana duten urte hauek harrera eskuzabalaren eta pazientzia agortezinaren truke: ordainduko dut inoiz zuekiko zor handia? Euskaltzaindiaren Azkue liburutegiko langile prestuei ere, eskerrik asko. Eskerrak ematen dizkiet Gotzon Aurrekoetxeari, Joseba A. Lakarrari eta Blanca Urgelli. Nire familia, adiskide eta laguntzen nauten guztientzat ere nire esker ona. Lan honi egin iruzkinak ongi etorriak izanen dira.

oso Lapurdiko ipar-ekialdean zintzilik bezala agertzen den Bardoze herriko euskararen ezaugarri batzuk. Hain zuzen ere, ikertzaileon arreta hartzen duen Bardozeko elementu horietarik bat *ü* bokal «zalantzata» da. Hau da, nolakoa da bokal hori? Ezaugarri horrengatik bardoztarren mintzoa lotu behar da Nafarroa Behereko Amikuzeko hizkerarekin, edo alderantziz, Lapurdiko Aturriko euskaratzat hartu? Hara, galdera handiegiak idazki honentzat. Hala ere, eta bokal honek Bardozeko euskararen bete ahal duen tokiaren nolakotasunari zer-bait hurbiltzeko asmoz, ikerlan honetan Lapurdin egindako galdeketa baten emaitzen interpretazioa ekartzen dut.

Ez du Bardozeko bokal horrek soilik ikertzaileon ardura jasotzen. Izan ere, aspalditik bertako zein inguruko hiztunak ere bere presentziaz jabetu dira. Zehatzago esanda, Lapurdiko alderdi horretan *ü* bokala hiztunak –nahiago bada, hiztunen jatorria– bereizteko eta identifikatzeko baliatzen den tresna omen da. Datuen bilketarako ez ezik, dialektologiaren teoriarako ere interesgarria da berriren bat jasotzea *marker* honi buruz –kanpoko hiztunengandik baina baita bardoztarrengandik ere–.

Aturriko euskara modu xehean edota nolabaiteko arduraz aztertu dituzten iturri batzuen bidez –ik. Bibliografia atala– korpusa osatu eta gero, aukeraturiko berriemaile batzuei galdeketa egin diet. Artikulu honen helburu nagusia inkesta horietako emaitzen interpretazio orokorra jakitera ematea eta Bardozeko *ü* bokalaren ezagutzarako proposamen batzuk eskaintzea da. Izan ere, beste lan zabalago batean aritu nahiko nuke xeheago Aturriko euskarari buruz. Eta horrengatik, artikulu hau ez da lan horren berezko zatitza hartu behar.

1.2. Galdeketen testuingurua eta berriemaileak

Jarraian laburtuko ditut lagundu nauten berriemaileen ezaugarri nagusiak. Bi motako hiztunak aukeratu ditut. Batetik, Bardozeko egungo eta aspaldiko euskara ezagutzen dutenak. Eta bestetik, Mugerreko eta Beskoitzeko *NORM* berriemaileak –guztira, lau lagun–. Bigarren talde honetako hiztunak aukeratzeko irizpide nagusiak bertako hizkera egitea edo ezagutzea eta bertan bizi izatea izan dira, eta galdeketa modu orokorrean egin diet. Lehen taldean, ostera, bi multzo egin ditut, hiztunen ezaugarrien arabera. Lehenik, modu arinagoan elkarrizketatu ditudan hiztunak. Laguntzaile horiek guztiak Bardozen bizi dira, eta ezagutu/ezagutzen dute Bardozeko euskara, nahiz eta *NORM* ereduaren baldintza guzti-guztiak ez dituzten betetzen –guztira, lau lagun–. Bigarrenik, galdeketa osoa egin dieran hiztunak, honatx:

- (1) Berriemailea, 63 urte, Bardozen sortua, ama eta aita Hazparnekoak.
- (2) Berriemailea, 77 urte, Bardozen sortua, gurasoak Bardozekoak.
- (3) Berriemailea, 87 urte, Bardozen sortua, aita eta ama Bardozekoak.

Guztira, 11 lagun.

Galdeketak lauzpabost hitzorduetan egin ditut, eta beti giro atsegina sorzea lortu da. Horregatik, berriemaileen erantzunak jasotzeko ez ditut bakarrik zuzeneko galderak edota frantsesaren itzulpenak erabili, solasaldi lasaiak ere baliatu ditut. Galdeketak amaitu eta gero, beste hitzordu bat antolatu nuen zenbait hitzunekin nituen zalantzak argitzeko.

2. GALDEKETEN EDUKIA

2.1. Korpua osatzeko iturriei buruz

Erabilitako iturriak aztertu ditudanean, lehenasuna eman diet *ü* garbia duten lekukotasunei. Kasu batzuetan zalantzak izan ditut. Izan ere, oraindik artikulua honen idazketaren momentua arte, hitz batzuen grafiarengatik edota datozen iturrien nolakotasunarengatik, ez dut posible izan *u* eta *ü* idazketen artean aukeratu. Kasu horietan guztietan *u* eman dut geroxeago aurkezten dudan zerrendan. Adibidez, L. L. Bonaparteren eskuizkribuetan batzuetan ez da erraz ikusten *u*, *ü* edota *ou* idazketen arteko harremana, bereziki batera agertzen direnean zenbait hitz zerrendetan zehar. Beste kasu batzuetan, ordea, zalantzak ez dira horrenbesterako izan. Adibidez, EAELko Beskoitzeko eta Urketako emaitzak alderatzen badira, argi ikusten da ez direla irizpide berdinak erabili erantzunen transkribaketan. EHHako grabaketei dagokienez, aldiz, zalantzak askoz arinagoak izan dira.

Erabilitako iturrietako adibideetatik aparte, hitz batzuk gaineratu ditut *ii* bokalaren hedapena hobeki ezagutzeko ideiak ekartzeko asmoz. Hitz horiek izartxo batekin markatu ditut.

Hiztegi arruntaren barneko hitzak bereziki aukeratu ditut. Hitz horiekin guztiekin korpus itxi bat osatu eta horren gainean artikulua honen helburu nagusia eraiki dut. Beraz, korpus itxi honetatik kanpo jasotako lekukotasunak ez ditut lan honetan aintzat hartu.

2.2. Korpua

Jarraian inkestetan galdeturiko hitzen zerrenda alfabetikoa ekartzen dut.

ahüntza	auhaldü	bürkhi
aitzur	auharia	bürra
akülia	azabüria	bürü üna
altzürria	barur*	bürülla
alümeta	basakülan	büztana
amü	bazkaldü	egüberri
askaldü	burdina	egüerdi

egun*	küküiso	uda
egürra	larrüa	üdaondar
egürrairiak	lebüra	udare
ehün, berrehün/biehün	legümak	udazkena
epheildü	lümak	uhatx*
erditu, hertu	maikhü	ülhündürtü
ersün	mailü	ülündu
esku*	makhürtü	üme
eskurpiüñ	marrhübi	unyo
eüliak, ülia	masüsa	urde
ezkür	merkatüian	urđin
früitietan	miüküian	urhandi
frutüak	moztu	uri
gaitzürü	mürü	urte
garbüra	müsütü	ürrieta
gathüa	muthu*	urrin
gau	mütür	ürritza
gauerdi*	negü	ursan*
gizun	oihü egin	urtu*
gorpütza	onthüak	urtzo
gu, gure*	orhoitu, orhitu*	urxantz*
gusu, gusia	partitua*	uste izan*
haür	pelatüa	ustel
hün vs. (h)un	phiztu	uthurriac
hür vs. ur	pikatüa	utz*
hurrupatu*	plomü	üztalla
-i бүрүз	-ra бүрүз	xagü
iküztea	sartu*	xuriketa
ilüna	su	zabaldu, zabaldirik
intharrostü	sudur	zalı
isildu*	suge	zelaürü
itsu*	sugeütsü	zerbitzu
kallüa	sükhar	zikindü
kexü	sülfatatu	zorroztü
kharrunte, kharruñ	suskandila	züpi
khürlo	suskar	zura
küba	thü egin, thüa	zuritü

2.3. Korpusa osatzeko erabili ditudan galderak

Arestian esan bezala, irudi luke Bardozen –baina baita Bardozetik kanpo ere– balio berezia ematen zaiola *ü* bokalaren agerraldiari. Inkognita hori argitzen saiatu ahal nintzela ikusi bainuen, pertzepzio-dialektologiaren bidetik –ingelesezt,

*Perceptual Dialectology*²– galdera batzuk egiteari egoki iritzi nion hastapenetik. Horregatik, galdeketa zehar, eta beti ere giro atseginean murgilduta, Bardozeko euskarari buruzko iritziak eskatu dizkiet berriemaileei. Batzuetan, galdera zuzenak erabili ditut. Beste batzuetan, ordea, berez atera da gai hori elkarrizketan. Egin dizkiedan galderen adibide batzuk idazten ditut jarraian.

- Bardozen txikitik hitz egiten zenuen euskaraz? Eta orain? Herri guztian berdin hitz egiten zen/da? Alderik bazen/bada inguruko herriekin konparatuz?
- Bardozen izan zara? Euskaraz hitz egiten da/zen bertan? Ulertzen duzu Bardozeko euskara? Nolakoa da? Aipatuko didazu Bardozen erabiltzen den hitz edo ezaugarriren bat?
- Ba duzu zure inguruan bardoztarrak? Euskaraz hitz egiten duzue elkarrekin? Berak zure euskara ulertzen du? Zer esaten du?
- Lehen esaten zen bazela euskara «ona» eta «txarra»? Nork esaten zuen? Eta orain?

3. GALDEKETEN ERANTZUN NAGUSIEN LABURPENA

3.1. (1) Berriemailea

- a. Oso erantzun gutxi eman ditu *ü* bokalarekin. Bokal honetaz galdetu izan diodanean saiatu da elkarrizketan batzuk txertatzen.
- b. Partizipio burutu zenbaitetan eta hitz batzuetan *-üa* entzun dut (*partitüa, ormatüa, negüan, zalüa, mirüa*). Hala ere, gehienetan iruditu zait errazago esan dituela *-uia* amaieradun hitzak. Berriemaile honek Bardozen berezkoagoa omen den *-ia* amaiera ere ezagutzen du, baina ez du maiz erabiltzen. Gainera, batzuetan, (1) hiztun honen *-üa* ez zait (3) hiztunarena bezain garbia iruditu, hau da, *-üia* edo antzeko zerbait ere entzun izan diot (*aphezpiküia*). *Mürriüa* erantzunaren *-üa*, ordea, argia izan da. Gertaera horien guztien atzean hizkuntzaz kanpoko eragileak ere egon daitezkeela iruditu zait.
- c. Berriemaile honentzat Hazparneko euskara eta Bardozeko euskara gauza berdina dira, nahiz eta badiren hitz batzuk aldatzen direnak. *-uia* eta *-ia* amaieren artean Bardozekoa zein den galdetuz gero, biak direla Bardozekoak esaten du, biak berdinean esaten direla.
- d. *Früitietan* eta *mürriüa* erantzunetan frantsesaren ordainaren eragina ere badela ematen du.

²Ik. Preston, D.R., 1989, *Nonlinguistics' Views of Areal Linguistics*, Foris, Dordrecht.

- e. Hitzun honen ustez *ü* bokala ez da askotan Bardozen entzuten, bakarrik hitz batzuetan. Eta etxean erabili ez duten arren, beti ulertu izan dute-la dio. Bardozen *ü* bokalarekin esaten diren hitzak bertakoak ez direla esaten du, hain zuzen ere, Donapaleu, Amikuze edota Zuberoakoak direla. Ahalmena du aipatzeko bere ustez Bardozoko euskararenak diren ezaugarri batzuk (*ekheerri*, züketa alokutiboa, eta abar) baina ez dirudi bere hizkeran txertatu dituenik.

3.2. (2) Berriemailea

- a. Eman dituen erantzunetan *ü* bokalaren ahoskera (1) hitzunarena baino zertxobait garbiagoa dela iruditu zait.
- b. Jarraian ekartzen ditut berriemaile honen galdeketan *ü* bokala duten erantzun gehienak, salbuespenak eta guzti: *zuritü, zikindü, pikatü/pikatu, aphaldü, askaldü, auhaldü, sulfatü* eta *isildü* baina *akülatu, orhoitu, pelatu, urtu, onthu* eta *xorroxtu; akülia, larrü, gathü, hürra, müriü, xüria, amü, ersün, kexü, mendira büriüz, egüberri, barür, üztalla, üdaondar, egürra, ilhündürial/ülhündüria, gorpütza, oihü, maikhü, azabüria, maasüsa, züpia, zelaurü, üsteldia, negü, büztanal/buztana, haiürra, ahüntza*.
- c. Frantsesaren eragina ikus daiteke *garbüra, alümeta, basakülan, legümak, lebüra* erantzunetan, adibidez.
- d. Erantzun batzuetan *gathüa* eta *gathia* gisako hitzen artean zalantza izaten duen arren, *gathia* eta *gathü bat* aukeratzen ditu amaieran. Ez dut *gathüa* aldaeraren alde egiten entzun.
- e. Korpusaren hitz kopuru osoa aintzat harturik, hitzun honen erantzunen heren bat edo eman du *ü* bokalarekin, gutxi gora-behera, salbuespenak barne. Gauza bera esan daiteke (3) berriemaileari buruz.
- f. Hitzun honek hasieran ezkor agertzen bada ere, galdera batzuen ostean memoriak erantzuten dio eta ederki aritzen da galdeketan. Kasu batzuetan, oso ziur da bere erantzunaz, eta zalantza duen kasuetan, gehienetan *ü* bokala duen aldaeraren alde egiten du. Bardozen horrela hitz egiten zela esaten du, baina hala ere, bere ustez Bardozoko euskararen ez da oso txertaturik egon, ez da «oso berezkoa». Hau da, hitzun honen aburuz, egia da *ü* bokala bardoztarren euskararen aurkitzen dela, baina txertatuago dago, adibidez, Amikuzen.

3.3. (3) Berriemailea

- a. (2) hitzunaren kasuan bezala, *ü* bokalarekin eman dituen erantzunetan bokal horren ebakera (1) hitzunarena baino garbiagoa izan da.

- b. *Ü* bokalarekin eman dituen erantzunen adibide batzuk: *zikindü, auhal-dü, onthü, idortü*, baina *akulatu, garbitu, urthu, moztu, aphaldu, makhurtu, pikatu, epheildu, afaldu, xorroxtu, ustelduko* eta *bazkaldu; entzüten, büztanaakin, ürrixa/urrixa, thü, lekhüitan, azabiüria, üdaria/udaria, batzü, bürian, güti, üztarrian, hürra, ahüla, ülhüna/ilhüna, egürra, egürriliak, marrhübia, ümia/umia, ürte, itzülikatzeko, hüna, ülia, baakizü, lürrien, gaiztüriü*.
- c. Frantses ordainaren eraginaren bidean kokatuko nituzke hurrengo adibide hauek: *bürra, aliümetak, düdako, otobüsak, lagümak, garbüra*.
- d. Lehen egunetik aurrera *ü* bokala entzun izan diot hiztun honi. Hala ere, beharbada euskaraz mintzatzeko ohitura faltagatik, ez du erakutsi aurreko galdeketa batzuetan agerturiko ziurtasuna. Esan behar da minutu batzuen ondotik badakiela ezberdintzen bere ustez Bardozekoak diren aldaerak. Horrekin batera, *ü* bokala (2) hiztunak dioen baino askoz ere zabalduagoa zegoela esaten du. Gainera, Bardozen euskara «ona» ez dela egiten uste du, eta euskara «polita» entzuteko Hazparnera edota Uztaritzera joan behar dela. Ez daki zergatik esaten duten *ü* hori, baina *duaikha, hantik ekharria* pentsatzen du, ez baita, bere ustez, Bardozen sortu.

3.4. Gainontzeko berriemaileen ekarpenak

Galdeketa erantzun duten Bardozeko berriemaileek *ü* bokalari buruz dituzten iritziaik mota askotakoak dira. Gehienek esaten dute Bardozen bokal hori bazela/badela, eta aspaldian gehiago entzun zitekeela orain baino. Bada iritzien gutxiengo bat, ordea, uste duena Bardozen ez dela bokal hori agertzen, batzuek esaten zutela/dutela, baina haiek ez zutela/dutela erabiltzen. *Ü* bokalari buruzko galdeketa pixka bat sakondu dudanean, Bardozeko berriemaile batzuek erantzun dute haien euskara ez dela *ona*, hainbat hizkuntzekin nahasten dutela, ez dela euskara *garbia*, eta beraz, *ü* hori ez dela esan «behar»³. Halarik ere, lagun horiek jarraian gaineratu ohi dutena *bainan erten da* izaten da. Gaineratu nahiko nuke Bardozeko hiztun gehienek Mugerre edota Beskoitzeko euskara *konprenitzen* erraza dela esan didatela.

Bardozetik haratago galdeketetan, hau da, Mugerren eta Beskoitzen, Bardozeko hizkera zertxobait diferentea dela esan didate orokorrean. Baina *ü* bokalaz galdetu izan dudanean gehienetan, ez zait iruditu ezaugarri horretan Bardozeko hiztunek bezainbeste arreta jartzen dutenik, izan ere, batzuek ezagutzen dute *ü* bokala ez den Bardozeko bestelako ezaugarriren bat ere. Dena den,

³Ik. Preston (2006): «This may indicate that northern speakers are more focused on the symbolic use of their own variety as a vehicle for standardness, education, and mainstream values, but are less concerned with language variety as a vehicle for solidarity.».

Mugerre eta Beskoitzeko berriemaile askok *dena nahaxtekatuik duxu hor* edota antzeko zerbait esaten dute. Badira, ordea, modu positiboagoan pentsatzen dutenak, ezberdintasun horiek –baita beraien euskararen barnean direnak ere– erlatiboki hartuz. Bide honetatik, batzuek diote Bardozeko euskara ulerzea erraza dela, eta beste batzuek, aldiz, ez dela *konprenitzen*.

Esan dezadan Mugerren *miriia* bezalako hitz bakan batzuk jaso ditudala/direla⁴, baina artikulua honen idazketaren unean ez dut posible izan horrelako adibideen lekua zehaztea. Iruditzen zait azterketa fonetiko-fonologikoarekin batera, azterketa akustikoa ere baliagarria izan daitekeela *ü* bokal horiek guztiak ongi identifikaturik egon daitezen⁵.

4. ONDORIO ETA PROPOSAMEN ZENBAIT

Bardozeko *ü* bokalari buruz idatz daitezkeen galderak kolore askotakoak dira: euskal hizkera horren barneko fonematizat har daiteke? Nolako banaketa fonetiko-fonologikoa erakusten/zoritzen du? Bardozeko euskara egiten dutenek bakarrik esaten dute edo bertako euskaldun guztiek erabiltzen dute? Nolako iritziak dituzte bardoztarrek eta inguruko euskaldunek bokal horri buruz? Gisa horietako galderen erantzuna aurkitzen laguntzeko, jarraian laburtuko ditut, batetik, ikerlan honen testuinguruaren barruan kokatu behar diren ondorio nagusiak, eta bestetik, Bardozeko *ü* bokalaren azterketa egiteko aintzat hartu ahal diren proposamen batzuk.

4.1. *Ü* bokala

Begien bistako baieztapena iruditu arren, esango dut Bardozeko euskarari *ü* bokala aurkitzen dela. Gainera, kanpokoek eta bertokoek ezagutzen dute, Bardozeko hizkeran nolabaiteko presentzia *indartsua* edo *arrunta* duen/zuen bokala da.

4.2. Nork esaten du *ü* bokala?

Bardozeko hizkera egiten duen bardoztar batekin ezkondata dagoen arren, eta Bardozen bizi arren, (1) berriemaile bardoztarraren euskarari ez da *ü* bokala *erabat* txertatu. Bere gurasoek Hazparneko euskara egiten zuten, baina

⁴Ondo entzun ote ditut EHHako Mugerreko *azeriütztana* bezalako erantzunak?

⁵«En ciertos casos una *u* antigua ha pasado a *ü* en suletino, bajo-navarro oriental de Mixe y en el habla (bajo-navarra o labortana) de Bardos. En suletino la realización normal de /ü/ es más próxima a fr. /ø/ que a fr. /i/ (6). Como simple variante del fonema /u/ en ciertos contextos, una vocal anterior redondeada es también conocida en otras zonas.» (Michelena 1961: 51-52).

Bardozeke euskarara moldatzen bazekiten, hain zuzen ere, une bakoitzean aurrean zuten solaskidearen arabera. Hau da, ezagutzen zituzten Bardozeke euskararen ezaugarriak, baina ez zituzten bere hizkeran *erabat* sartzen. Lehengo bizimoduaren ardatza etxea zen, eta bizimoduari lotuta egon da beti hizkera. Agian horrela azal liteke Bardozeke bestelako mintzamoldeak ulertzeko ahalmena eskuratu izana etxeko euskara erabat galdu gabe. Nire ustez, gertara hauek ulertzeko ezagutu behar dira ez bakarrik hiztunen jatorriak –nor den Bardozekea eta nor ez–, baizik eta baita herrian egiten zituzten gauzak ere, atzendu gabe usadioak, ohiturak, bizimoduaren ezaugarriak, eta abar.

Arestian aipaturiko ideiaaren bidetik, beharbada horrela ere azalduko litzateke galdeketaz kanpoko hiztun bakan batzuek *ü* bokal hori inoiz ere ez entzun izana. Hau da, agian ez dute haien bizimodua bokal hori erabiltzen duten lagunekin lotu. Euskaldun horiek nolako eta norekiko harremanak dituzten ikustea intereseko gaia da.

Bide beretik, ikusi beharko litzateke *ü* bokala egiten duten bardoztarrek elkarrekin hitz egiteko aukera duten/zuten edo ez. Nola moldatzen ziren? Soilik *ü* bokal hori zeukaten euskaldunekin zirenean mintzaten ziren beren hizkeran? Eta pixka bat haratago joanez, hiltzorian egon arren, aldatzen jarraitzen baitute⁶, oso interesgarria litzateke aztertzea hiltzorian diren hizkerek nolako eragileak jasotzen dituzten aldaketak egiteko.

4.3. Aztertutako iturriak

Aipatu ditut iturri guztiak ez direla fidagarritasun maila berekoak. Ikerlan honetan aukeratu ditudan adibideak Bardozeke berezko euskaratzat hartu ditut, eta gisa horretan baloratu izan ditut galderak egin eta erantzunen emaitzak baloratu ditudanean. Nire helburua ez da izan hitz horiek eta gaur egungo berezko Bardozeke euskara arteko garapena deskribatzea, baizik eta nire asmoa izan dela galdeketetan erabiltzeko korpus fidagarri eta borobil bat osatzea. Halaz guztiz ere, esan dezaket iturri horietako galdeketak gaur egun egingo balira, *ü* bokalarekin askoz adibide gutxiago lortuko lirатеkeela. Gainera, berriemaileen erantzunetan eskuratuko litzatekeen ziurtasun maila ez litzateke oso handia izango. Hau da, duela hamarkada batzuk baino askoz gutxiago esaten –edo *entzuten*– den elementua da *ü* bokala.

Badira, ordea, nahiko egonkor mantentzen diren erabilerak –*güti*, *büria*, *-ra büürüz*, eta abar–, hiztun batzuk oso ziur dira bokal horren tokiaz, eta horregatik bai iruditzen zait iturrien azterketa eta galbahe on batek onura handiak ekarriko lituzkeela. Izan ere, *ü* bokala *kontserbatzeko eredurik* ba da? Hau da, testuinguru fonetiko-fonologiko/lexiko/morfologiko batzuk egokiagoak dira beste batzuk baino?

⁶Berrikuntzak egiteko ahalmena ez omen dute galtzen, nahiz eta desagertzeko puntuan egon.

4.4. Testuinguru fonetiko-fonologikoa eta Bardozeko euskararen egoera

Aurreko ideia horretan iradoki dudan bezala, adierazi nahiko nuke beharrezkoa litzatekeela aztertzen saiatzea *ü* bokalaren testuinguru fonetiko-fonologikoa. Fonematzat hartu behar da? Galdeketa ez dut galdera hori taxuz erantzuteko adibide aski aurkitu, baina zalantzarik gabe, topatu daitezke pare minimo batzuk *-hür/ur-*, nahiz eta oso urriak izan, edo ongi esanda agian, gero eta urriagoak.

Erantzunetan batzuetan irudi luke *ü* bokalak partizipioaren *-tu/-du* marketan agertzeko joera duela, baina orduan berriemaileek jarraian kontrako bizpahiru adibide esaten dituzte. Beste kasu batzuetan, ordea, zain egon naiz *ü* bokala noiz agertuko, eta bat-batean, *ülhündürü/ilhündürü* bikotea agertzen da, *ü* duten beste hitz batzuen aurretik. Gainera dezadan (2) eta (3) hiztunek ez dituztela arras berdinak diren erantzunak ematen, hau da, batzuetan bat datozen arren, gertatzen dela modu berean batek *u* dioen tokian besteak *ü* bokala sartzen duela hitz batzuetan. Horregatik, irudi luke *ü* bokal hori *-bokal* horren tokia, *maila-* hiztunez hiztun ere aldatzen den ezaugarria dela. Gertara hauekin batera, badira niretzat oso esanguratsuak diren alderdiak. Batetik, *marr(h)übia* edota *su(i)a* bezalako hitzetan ziurtasuna handi-handia izatea, eta bestetik, euskaraz egiteko hamarkada askotako ohitura falta duten galdeketaz kanpoko hiztunek ere *büria*, *ilhiün* eta antzekoak esatea, eta are gehiago, Bardozeko ezaugarritzat hartzea, eta ez *buria*, *ilhun*. Dena den, esan dudan bezala, lan honetan ez ditut xeheki aztertzen galdeketetatik kanpo diren hiztun horiek. *Itzülilikatzeko* eta *auhaldü* gisako erantzunak jasotzeak, eta ez *ützülilikatzeko*, *aühaldü* *ü* bokalaren emankortasun fonetiko-fonologikoaz zerbait kontatu ahal du? Korpus zabalagoa beharko litzateke, agian, zerrenda luza daitekeen edo ez ikusteko.

Aurreko lerro horiei guztiei loturik, eta egindako inkesten gainontzeko erantzunak kontuan harturik, aztergai interesgarriak eta beharrezkoak etorriko lirateke. Hau da, nola interpretatu beharko litzateke *u/ü* pare minimo gutxi batzuk egotea, aldi berean galdeketaren erantzun gehienetan *u* *-eta ez ü-* agertzea, zenbait hitzetan zalantzarik gabe *ü* berrestea, eta gainontzeko kasuetan, zalantza ez bada, bietariko aldaerak onartzea? Gibelka ari den fonema bat litzateke? Lexikalizaturiko hitzak izan daitezke *ü* bokala duten guztiak? *Ilhiün* eta *oihü'in* erantzunetan, adibidez, *ü* bokalak *paper* fonetiko-fonologiko berdina izango luke? *Ü* bokal hori emankorra da Bardozeko hizkeran? Nolako eragina du Bardozeko euskararen egoerak *ü* bokalaren agerraldietan?

4.5. *Ü* bokalari buruzko iritziak

Inkestaturiko lagunak Bardozeko *ü* bokalaren presentzia *indartsuaz* edo *arrantaz* jabetuak dira, baina *bitxia* ere badela iruditzen zaie orokorrean. Na-

hitaezkoa litzateke jasotzea eta ordenatzea bertako zein kanpoko hiztunek hizkera honi buruz dituzten iritziak⁷, bereziki aburu hauek euskara mintzatuan nolako indarra duten/izan dezaketen deskribatzeko. Izan ere, batzuetan, hiztunek ez omen dakite oso modu argian *ü* bokala noiz erabiltzen den, edota *zergatik* erabiltzen den. Adibidez, EHHako hiztun batzuek bezala, ikerlan honetan inkestaturiko lagun zenbaitek ere, *ü* bokala elkarrizketan ateratzen denean *dependitzeuk/uxu konberzazionea* edo antzeko iritziren bat esaten dute. Beste batzuek, ordea, uste dute ahoskerak idazketarekin zerikusia duela, eta zenbait alditan *ü izkiriitzen da* –hots, <u>–, *bainan u erten da* –hots, <ou>– esaten dute.

Bide beretik, kontuan hartzen badugu nahiko modu orokorrean pentsatzen dela Bardozen dena *mélangé* hitz egiten dela, eta hori lagun batzuek ez oso modu «positiboan» hartzen dutela, nolako eragina izan dezake uste horrek *ü* bokalaren presentzian? *Ü* bokala atzeraka ari den ezaugarritzat hartuko balitz, bere agerraldien kopurua murrizten duen hizkuntzaz kanpoko eragile baten menpean ere egongo litzateke?

Ez dezadan esan gabe utzi ondoko hizkera bati buruzko iritziak ez direla zertan berdinak izan behar hango hiztunek hemengo hizkeraz dituzten usteekin alderatuta. Hots, hizkereri buruzko pertzepzioaren norabide guztiak ezagutzea gomendagarria dela, izan ere, modu horretan arituz, hizkera horietako gertakera batzuek azalpen borobilagoa eskuratu dezakete, jokoan diren eragile guztien berri emanez.

5. LABURTUZ

Ikerlan honetan ekarri ditut inkesta batzuen emaitzen interpretazioen inguruko gogoeta batzuk, *ü* bokalak Bardozekeo euskaran duen tokia –oso modu orokorrean bada ere– ezagutu ahal izateko. Zalantzarik gabe, *ü* bokala Bardozekeo euskaran bada/bazen, baina gaur egingo balira duela hamarkada batzuetako galdetegiak, erantzunak oso bestelakoak izango lirateke.

Ez dituzte Bardozekeo euskaldun guztiek bizipen berdinak izan *ü* bokalarekin, eta horregatik, hizkeran duen erabileraren ezagutzan aurrera egingo bada, ezinbestekoa da kontuan hartzea berriemaile bakoitzak izan duen bizimodua eta ohitura multzo horiek zoritu dituzten harremanak. Ahalik eta lasterren bokal horren testuinguruak zehaztu beharko lirateke galdetegi luzeago eta hiztun gehiagorekin, izan ere, pare minimoak urriak dira, eta urtez urte, hiztunek bikoteen artean aukeratzeko dituzten zalantzak areagotzen dira. Gainera, *ü* bokala hiztun batetik bestera aldatzen den ezaugarria dela ematen du.

⁷Ik. Taedelmanek (1989:159) dioena: «The degree or opposition to the surrounding rural dialects may vary from town to town, but everywhere it is quite evident and people are aware of it.».

Bardozeiko hiztunengan ez ezik, inguruko euskaldun batzuegan ere badira arreta merezi duten iritziak *ü* bokal honekiko eta zenbait kasutan Bardozeiko euskararekiko: euskara *garbia* eta *ona* ez dela, dena *nahasturik* dela. *Ü* bokalaren agerraldien kopurua aztertzeiko ideia hauek kontuan har daitezke, eta baita Bardozeiko euskara hiltzorian dagoen hizkera izatea ere.

Inguruko hizkeretan –Mugerren, Amikuzen, eta abar– aurkitzen diren adibideak akustikoki ere analizatzea ondo legoke, bereziki Bardozeiko emaitzekin duten harremana edota balizko eragina ezagutuko bada.

6. BIBLIOGRAFIA

- ALLIÉRES, J., 1960-1961, «Petit atlas linguistique basque-français ‘Sacaze’», *Via Domitia* VII, 205-221 eta VIII, 81-126.
- , 1977, «Petit atlas linguistique basque-français ‘Bourciez I’», *FLV* IX-27, 353-386.
- , 1986, «Petit atlas linguistique basque-français ‘Bourciez II’», *FLV* XVIII-47, 5-45.
- ARANA MARTIJA, J.A. & GONZALEZ ETXEGARAI, C., 1989, *L.L. Bonaparteren Eskuizkribuak—Argitarapenak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, 1984-1990, *Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa*, 2 liburuki, Donostia.
- AURREKOETXEA, G. & VIDEGAIN, X., 1993, «Euskal Herriko Hizkuntz Atlas: Galdesorta», *Euskera* 38-3 [separata], Bilbo.
- CHAMBERS, J.K. & TRUDGILL, P., 1980, *Dialectology*, Cambridge University Press.
- DUHAU, H., 1993, *Hasian Hasi* [Beskoitzeko heskuara], Alinea, Donibane Lohizune.
- , 2003, *Hasian Hasi* [Birden parte], Alinea, Donibane Lohizune.
- ECHAIDE, A.M. (arg.), 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, 2 liburuki, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ETXEBARRIA, J.M., 1983, «Las grabaciones de Viena en euskera», *Mundakiz* 47, 61-63 eta 68-71.
- EUSKALTZAINDIA, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas [EHHA]*, Argitaragabea, Bilbo.
- GARZIA, J. & URKIZU, P. (arg.), 1991, *Bertsolaritzaren Historia*, Etor, Donostia.

- LAFON, R., 1962, « Sür la voyelle ü en basque », *BSL* LXII, 83-102.
- MICHELENA, L., 1977[1961], *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- PAGOLA, R.M. ET. AL., 1999, *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Ekialdeko Behe-Nafarrera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- PRESTON, D.R., 2004, «Language with an attitude», in Chambers, JK. & Trudgill, P. & Schilling-Estes, N., 2004, *The handbook of language variation and change*, Blackwell, Malden, 40-66.
- , 2006, «Perceptual dialectology», in Brown, K.(ed.), *Encyclopedia of language and linguistics*, Elsevier, 258-266.
- SALABERRY, B., 2002, «*Mugerreko euskara: hurbilketa bat - Euskara batuaren eragina euskalkian*», Euskal Ikasketetako Tesina-lana, zuzend. X. Videgain, Euskal Ikasketen Unibertsitateen arteko Saila, Pabe eta Aturri aldeko Unibertsitatea, 2001 (laburpena)», *Lapurdum* VII-urria, 353-355, IKER-CNRS, Baiona.
- TAEDELMAN, J., 1989, «Typology of dialect transitions in Flanders», in M.E.H. Schouten and P.Th. van Reenen (edit.) 1989 [1987], *New Methods in Dialectology*, Foris, Dordrecht-Holland/Providence RI - U.S.A, 155-163.
- YRIZAR, P. DE, 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia, 2 liburuki.
- , 2002, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (Estudio dialectológico) [I-II-III]*, Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea-État Française/Frantsez Estatua-Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorra-Akitaniako Kontseilua, Bilbo, 1999-2002.
- ZUAZO, K., 1989, «Zubereraren sailkapenerako», *ASJU* XXIII-2, 609-650.

ACER ESPEZIEEN EUSKAL IZENAK

Gasteizen, 2008ko irailaren 22ean

Manuel M. Ruiz Urrestarazu

Bi izen generikoak daude funtsean *Acer spp.*-i euskaraz deitzeko: **ihar** eta **azkar**.

Bada hirugarren izen arrunta, **astigar**, baina, gero ikusiko dugunez, izen hori **ihar** edo **igar**-etik dator, hitz konposatua izanik.

Errazenetik hasiz, goazen **azkar** izenarekin. Beharbada *Acer* latinotik letorke. Euskal Herriko mendebaldean izen nagusia da. Ekialdean ere izen hori aurkitzen dugu noizbehinka.

Araban, Herri osoaren mendebaldean gertatzen den bezala, **azkar** zena da gaur zabaldiena, batez ere *Acer campestre* L. espeziari deitzeko. Segi baino lehen esan behar dugu *Acer campestre* espeziea arruntena dela lurralde osoan eta horrexegatik ezagunena. **Azkar** izen hori «gazteleratu» da euskara galtzen ari izan diren arabar herrietan zehar; hiru izen «gazteleratu» aurki ditzakegu gaur Araban: «azcarro», «ascarro» eta «ascarrio», euskara lehenago galdu eta izena gehiago urrundu **azkar** erro soiletik. **Azkar** izenak zahar dirudi, agian erromatarren denboretatik eta beharbada *Acer* izenetik, Cicero-ren aroan *Acer* hitza «k» soinu ahoskatzen zen garaietatik hartua eta zerbait aldatua **azkar** eman arte.

Inguruetakoz hizkuntzetan honako antzeko izenak aurkitzen ditugu *Acer* espezie batzuei deitzeko:

«ezcarro», *Acer campestre* L. (Errioxa Goikoan eta Burgosen).

«escarro», *id.* *id.* (Errioxa Goikoan).

«escarrón», *id.* *id.* (Aragoiko Iparraldean).

«escarrio», *Acer monspessulanum* L. (Burgosen).

Ihar edo **igar** izena. Orain direla berrogei bat urte, Kontrastako gizon batekin nenbilen hango pagadi eta hariztoietan zehar eta *Acer opalus* Mill. espeziaren arbolon multzo bat topatu genuen. Kontrastako pertsona harek landareen izen arruntak ezagutzen eta bereizten zituen eta erabiltzen zuen fitonimia ia dena euskarazko erroetan finkatzen zen. Tamalez ahaztu zait kontrastar haren izena. Gizon adeitsu hari galdetu nion ea nola zeritzaten inguru

haietan arbola mota horri eta hona hemen haren erantzuna: **yar**. Lakoizketa nafar apaiz botanikoak, 1888an, bere «Diccionario de los Nombres Euskaros de las Plantas» arbola mota berberari bere euskarazko izen zerrendan biltzen zuen izen bera, alegia; Lakoizketaren lanean **yarra** bezala agertzen zelarik.

Orduan konturatu nintzen zer zen Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian *Acer campestre*-ri deitzeko erabiltzen den **astigar** izena: **asto-igar** edo **asto-ihar** («arce silvestre» esan nahiarekin). **Astigar** hori izen konposatu bat zen gero. Izen horren erroa **ihar** edo **igar** izenean aurkitzen zen. Lakoizketa ni baino lehenxeago, 1888rako, konklusio berberara etorria zen iadanik.

Botanikaren aldetik, azkenean toponimo batzuen bidez ikus dezakegunez, eta *Acer campestre* espezie arruntena eta zabalduena izanik, binomia historikoa gertatu izatea posiblea da, **ihar** edo **igar** hitzak garai batean erabili izanda eta beste garaian **astigar** bihurtu. **Astigar** azken izen honek gaur egun gaintasuna hartu du Gipuzko eta Nafarroan erabilitako euskaran.

Badugu, Nafarroan batez ere, *Acer monspessulanum* L. espezieari deitzeko izen berezi bat: **eri-ihar**. Telesforo Aranzadik, 1913an, RIEB/RIE Ven, «De los nombres de los arces o moscones en el país vasco y su masculinidad» bere artikuluan zioenez, Uharte-Arakilen *Acer monspessulanum* delakoari **eriyarra** zeritzaten eta Amezkoetan aldiz eta «erdaraz» hitz-egiterakoan «eriyarro». Xabier Irigaraik orain hamabost bat urte pertsonalki esan zidanez, arbola horri Imotz eta Anue ibarretako zenbait herritan **irigar** eta **iriger** esaten zioten eta *Acer campestre*-ari berriz **astirigar** eta **astiriger**.

Jean Elissalde 1934an azaldu zigunez (*Gure Herria*, 1934, 130-136. orrialdeetan) **hegigarra** izena *Carpinus betulus* L. arbolari ematen zioten. Baieztapen hori ez dut konfirmatu eta arraroa egiten zait Botanikaren aldetik.

Soinuei aditzen badiegu posibilitate bat datorkit burura. Ea **hegigar** horrek honelako izenak eman ez dituen:

hegi-ihar

eri-ihar

ei-ihar

Euskal Herrian *Acer Genus* horretatik ezagutzen ditugun espezieen artean arruntena *Acer campestre* L. da eta gero *Acer opalus* Mill., hego pagadi eta hariztietan eta *Acer monspessulanum* L. aldiz malda harritsu eta lur gutxiko gunetan. *Acer pseudoplatanus* L. eta *Acer platanoides* L. arraroago agertzen dira eta hostoen aldetik **ihar** deritzan *Acer opalus* Mill.-etik gertu dira.

Hizkuntz eztabaidetan toponimia dugu maiz lagungarri. Eta toponimiarri jotzen badiogu hona bildu ditudan toponimo batzuk, lurraldez lurralde hartuta:

Araban

Azkarbe	erreka, Mendiola
Azkardui	Olano
Azkarduia	Aspuru-Narbaiza
Azkargan	auzo, Larrinbe
Azkarguren	Uribarri Ganboa
Azkarra	Aletxa
	Arkaute
	Krispijana
Azkarraga	Alegria-Dulantzi
	Barrundia
	Burgu / Burgelu
	Urbina
Azkarragan	Meñao Goien
Azkartza	hiri, Gasteiz
	hiri, Trebiñu
	Aperregi
	Asparrena
	Barrundia
Azkartzakoa	Monasterioguren
Azkartzarana	Eskibel
Azkartxi	Olano
Eskarderana	kale, Done Bikendi Harana
Eskarduia	Okina
Eskarganzulo	Entzia
Eskarguren	Uribarri Ganboa
Eskarmendi	auzo, Arzubiaga
Eskarpe	Alangua
	Berrikano
Eskarra	Erbi
	Menoio
	Billodas
Eskarralde	Domaikia
	Erroeta
Eskarramendi	Legutio / Legutiano
Eskarrandi	Zekuñao
	Lagran
Eskarrerana	Urarte
Eskarreta	Alangua
	Ariniz
	Korres
Eskarriturri	Arrieta
Eskarrola	Lagran

Eskarrondo	Letona
Eskartegi	auzo, Zuia
Eskartza	Artziniega
Eskartzana	Arriola
	Asparrena
Eskarra	Iruraiz
Ezkarraga	Mandubide

Bizkaian

Azkarberri	iturri, Getxo
Azkardui	baserri, Goiherri (Zaldua)
Azkarra	baserri, Larrabetzu
Azkarraga	baserri eta iturri, Zeanuri
	etxe, Durango
	etxe, Elorrio
	Ziortza
Azkarralde	baserri, Mallabia
Azkarreta	baserri, Munitibar (Gerrikaitz)
	Iurreta
Azkartza	iturri, Berriatua
	Olazabal (Dima)
Eskartza	Urduña
Eskartzaga	baserriak, Gueñes
	baserri, Aranguren (Zalla)
	Galdames
Iartzta	baserri, (Traña) Abadiño
	etxe, Lekeitio
	baso, Mendata
Idarreta (?)	baserriak, Amoroto
Igartza	Meñaka
Irarraga	Xemein

Gipuzkoan

Astigar	baserri, Irun
Astigar aundi	baserri, Ataun
Astigariz (?)	Tolosa
Astigarraenea	baserri, Hondarribia
Astigarraga	hiri
	auzo, Ataun
Astigarrazu	etxe, Aia

Astigarreta	auzo, Beasain
Astigarribia	auzo, Mutriku
	baserri, Azkoitia
Azkargorta	baserriak, Bergara
Azkarra	Ezkoriatza
Azkarraga	baserriak, Oñati
Azkarreta	Baserri, Oñati
Azkarretazabal	(Arkarazo) Aretxabaleta
Azkarrondo	iturri, Arlaban
Azkartza	baserri, Gabiria
	(Arantzazu) Oñati
Azkarruntz	baserriak, Bergara
Eskaregi(?)	baserriak, Eibar
Eskarga (?)	Uzturre-Urdelar
Iartza	baserri, Abaltzisketa
	baserri, Altzo
	baserri, Zizurkil
	baserri, Urnieta
	baserri, Usurbil
	Mutiloa
Iartzabal	baserri, Usurbil
Iartzaberrieta	baserri, (Aratz-Matximenta) Azpeitia
Iartzaundi	baserri, Idiazabal
Idarreta (?)	Asteasu
Igarroa (?)	auzo, Aia
Igartza	auzo, Beasain
	baserri, Aizarna / Aizarnazabal
	baserri, Arroa
	baserri, Azpeitia
	baserri, Ezkio-Itsaso
	baserri, Itziar
	baserri, Oiartzun
	baserri, Zestoa
	baserri, Zumarraga
	trikuarri, Ataun
	Zizurkil
Igartzabal	baserri, Ezkio-Itsaso
	baserri, Gabiria
Igartzandieta	baserri, Segura
Igartzarena	baserri, Asteasu
Igartzeta	baserri, Zaldibia
Igartzeta edo Iartzeta	baserriak, Zarautz
Igartzola	baserri, Beasain
Iraramendi (?)	Aia
Irarrazabal (?)	Deba

Lapurdin

Azkarreta (D)ihartze	erreka, Urruña baserri, Arbona Sara
Eihartze	etxe, Hazparne
Ezkarba (?)	Lekorne
Iharra (?)	etxe, Uztaritze
Iharte (?)	erreka, Beskoitze
Ihartzaenea	Kanbo
Ihartze	baserri, Urruña
Ihartzegaraia	auzo, Sara

Nafarroa Garaian

Akerreta (?)	hiri, Esteribar
Astigar	Aranguren
Astigarraga	erreka, Leotz Malerreka
Astigarreta	(Zilbeti) Erroibar
Azkar	auzo, Zugarramurdi Urdazubi
Azkarbea	baserri, Azpilkueta
Azkardia	Altsasu
Azkarraga	auzo, Donamaria Zangozako merindatea
Azkarralde	Ziordia
Azkarreñegia	Lesaka
Azkarrieta (?)	auzo, Añorbe-Ukar
Azkarrotz	(Urtasun) Esteribar
Eskaltzeta	(Aginaga) Gulibar
Eskargaitz	(Aldunate) Urraulbeiti
Eskarkolata	Piedramillera
Ezkarra	Etxalar
Gastigarraga	(Gorza) Salazar
Iarmendi	Etxalar
Iarte (?)	Itza
Iartzako	erreka, Eratsun
Iartzaundi	Areso
Iartzeluxe	Luzaide
Igarbeltz edo Iarbeltz	(Artozki) Artzibar
Igardaena (?)	Erronkaribar
Igardoia	Izaba
Igardoki	Izaba

Nafarroa Beherean

Eihartze	auzo, Ortzaize mendate, Aldude-Baztan
Ezkardaitzea (?)	auzo, Irisarri
Iarra (?)	erreka, Baigorri Behoirlegi-Ortzaize
Ihartze	auzo, Bastida
Iskarrot (?)	baserri, Bastida
Oihartze (?)	erreka, Mendibe
Soihartze (?)	ermita, Uhartehiri

Zuberoan

Askarriga (?)	erreka, Santa-Grazi
Eihartze	baserri, Barkoxe
Eihartzeta	baserri, Garindaine baserriak, Barkoxe baserri, Larraine
Ihernotz (?)	baserri, Urdatx / Santa-Grazi erreka, Ozaraine-Erribareita

Euskal Herritik kanpo

Bescarce (?)	erreka, Etsaut (Bearn)
Biscarce (?)	Bedous-Sarrance (Bearn)
Escarboues (?)	Couserans
Escarchein (?)	Couserans
Escaron	Laruns-Etsaut (Bearn)
Azalpenak albo batera utzita, ontzat ematekoa da sarrera hitza bera aukeratzeko orduan erabaki eztabaidatsuak eta sarritan zailak hartu behar izan direla, batez ere tradizio ezberdinen artean hautatu beharra izan denean. *Literatura Terminoen Hiztegiaren* aurkezpen orrialdeetan aitortzen zaigunez, «gure kultur esparruko hizkuntza nagusietan erabiltzen den lexikotik gehiegi urrunduko gintuzkeen joera garbitzailetik edo zokokerietatik» aldentzeko joera nagusitu da, nahiz eta «euskal erroko lexikoari ere ahal bezain sarrera zabala» emateko ahalegina agerikoa den. Behar bada euskal neologismoen aurrean sortu dira erabakirik zailenak, batez ere «egoki sortuak eta hedatuak» izanik ere, sarrera gisa eskaini ala ez aukeratu behar izan denean. Horien artekoak ditugu *antzerki* eta *antzerki*, biek ala biek sarrera eta azalpen bana merezi izandakoak. *Olerki* eta *olerti* neologismoekin ostera ez da modu berean jokatu. *Olerti* hitzak behintzat *poesia* terminorako igorpen ohar bat dakar, baina

olerki hitzarentzat ez dago sarrerarik. Erabaki azalgaitza, *dekorazio olerki* bezalako sarreren osagai dela ikusirik. Merezi du *olerki* honek ere *poema* terminorako igorpen oharrez hornituriko sarrera xume bat, besterik ez bada. Dena den, halako erabaki eztabaidatsuetan erabateko koherentzia eskatzea gehiegikeria litzateke, nahitaezkoa baita horrenbeste egileren arteko lan batean zeinek bere irizpideei eustea, are gehiago adituak direnean egile horiek.

Euskal literatura hedatzen eta ugaritzen ikusi dugu XX. mendean zehar eta mende berrian ere hala eginez jarraitzen duela ematen du. Hortaz, izango da zer testuinguratu, aztertu, azaldu edota interpretatu etorkizun hurbilean ere. Gainera posmodernitateaz geroz literatura, historia edota nazio bezalako kontzeptu axiomatiko itxuraz finkoak auzitan jarri dira eta horren ondorioz literatura nazionalen historiak berrikustea nahitaezkozat jotzen da. Zeregin biotarako Euskaltzaindiaren *Literatura Terminoen Hiztegia* ezinbesteko lan-tresna baliotsua izango dute irakurle, ikasle, irakasle, aztertzaile, interprete, historiagile eta abarrek. Euskaltzaindia eta batez ere haren Literatura Ikerketa Batzordea zoriondu eta eskertu beharrean gaude unerik egokienean jarri digutelako esku artean *Literatura Terminoen Hiztegia*.

Valérie Dullion, *Traduire les lois (Un éclairage culturel). La traduction en français des codes civils allemand et suisse autour de 1900. Proximités Droit. Éditions Modulaires Européennes. Geneva, 2007. ISBN: 2-930342-71-4. 300 or.*

*Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Hizkuntza eta zuzenbidea, zer esanik ez dago, betidanik daude lotuta. Izan ere, historia eta kultura, gizartearen fruitu eta emaitzak dira. *Ius semper loquitur*, mintzo da beti zuzenbidea. Ezin isilean utzi horren zeregina, horixe baita, hitzen bidez, testuen bidez, gizartearen barruan elkarbizitza antolatzea.

Gutxitan aztertu izan dira gure artean bi osagai horien arteko loturak. Onik onenean ere, aparteko kontuak balira bezalaxe (Kanada), edo, hurbilagoak izanda ere (Belgika, Suitza), guretzat arrotzak eta premiarik gabekoak balira bezalaxe.

Beharrik, azken hogeita bost urteetan gurean ere euskarak lortu du ofizialtasuna. Horrek ekarri dio, besteak beste, egoera berri askoren protagonista izatea, horien artean txikiena eta laburrena administrazioa ez dela.

Administrazio hitzak gure artean islatu nahi ditu zuzenbidea eta arauketa, Europa kontinentalean 1789. urteaz geroztik horiek ezagutzen ditugun moduan, hots, Frantziako Iraultzak ekarritako estatu oroegile eta ahalguztidunaren eskutik.

Estatu horrek, begi-bistakoa denez, zuzenbidea du lanabes eta tresna, eta, horretarako, legeak behar ditu. Lege horien hizkera da kulturaren emaitza berezia, estatu eta gizarte zehatzari atxikia.

Hartara, hizkera horrek badu bere garrantzia, halako jarduera eta zereginetatik kanpo izan diren hizkuntzentzat, barbarako, euskararentzat, agerikoa baita horren premia, egungo Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroako Foru Komunitatean. Iparraldean ere, horretarako zantzuak gero eta nabaria-
goak dira.

Aldizkari ofizialak euskaraz datozkigun honetan, hurrengo gogoeta berezkoa da: nola, noren eskuetatik, zeren bidez? Eta erantzuna ere, berehalakoa:

neurri handi batean, itzultze-lanaren bidez. Egia esateko, gaztelaniaz ari den mundu juridiko eta administratiboaren zordun gara euskaldunok. Frantsesa oraindik bete-beteaz ez dela horretara bildu, eta Europako arautegia jada euskaraz sarean dagoenean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari esker (IVAP-HAEE), komenigarri eta baliagarri izan daiteke atzera begiratzea eta hausnarketa egitea, egun indartsuen diren bi antolamendu juridikoen arteko itzultze-lan juridikoaren gainean.

Horretarako da erabilgarri Valérie Dullion itzultzailearen liburua. Itzulpen juridikoaren arloko ikasketak egin zituen Genebako Eskolan, sona handiko eskola horretan, eta, 1998. urteaz geroztik, bertan da irakasle. Louvain-le-Neuveko Unibertsitatean defendatu zuen tesia, eta tesi horretan azaldu zuen, behinola, 1900. urtean Europako doktrina irauli zuen BGB kode alemana frantsesera nola eta zertarako itzuli zen.


Horrek baditu anitz esparru, eta, hasteko, zuzenbidea eta hizkuntza estekatzen dituenak, eta, horren lotzaile nagusia, itzulpen juridikoa, egun horrek dituen abiapuntu desberdinak oinarri hartuta.

Lanaren nondik norakoak ere egoki azaltzen dira (32. or.). Lehen kapituluan, bi testu erkatzen ditu egileak, hain justu ere, XIX. mendeko kode zibil nagusi biak eta horren ildokoa, Europari dagokionez: batetik, *Code Napoléon* (1804), eta, bestetik, BGB alemana (1896), eta, aurrekoaren ondorioz, Suitzako Kode Zibilaren (CCS deiturikoaren) testu alemana (1907). Hor azpimarratzen dira haien sorreran izan diren egoera bestelakoak. Ondorioak ere bide beretik datoz.

BGB-ren diskurtsoa Napoleonen kodearenari aurrez aurre jartzen badio ere, hori ez da horren argia CCS-ren kasuan. Desberdintasun horiek datoz, etorri ere, herri bakoitzaren historia juridiko eta politikotik.

Horiek horrela, bigarren kapituluan laburbiltzen dira BGB-ren testu frantsesak, lau itzulpenetan (La Grasserie; O. De Meulenaere; J. Gruber; Comité de Législation Étrangère), eta Suitzako Kode Zibilaren testu frantsesa. Egilearen iritziz, bi ideia dira nagusi horietan: lehenari dagokionez, terminologia juridikoa erabiltzeko orduan estrategia eta prozedura desberdinak dira; eta, bigarrenari helduta, itzultzaile batzuen joera askoz hitzez-hitzezkoagoa da fraseologia eta sintaxian, terminologian baino (96. or.).

Hirugarren kapituluak agerian jartzen du itzultzaile horiek nor izan ziren, eta zein zen euren kultura-ingurua. Hainbatez, egilearen ustea honetara dator (135. or.): BGB kodea itzuli zen Frantzian, konparatismoaren ikuspegian, nazioaren zuzenbidea eraberritzeko garaian. Itzulpenak hartzaile ditu legegileak, adituak, eragile juridikoak, G. Gruber-en bertsioan izan ezik. Suitzan, aldiz, itzulpenak zuzenbide nazionala osatu eta bertsio egiazkoa ematen du; testuok indarrean daude eta Suitzako estatuaren legerian barruratzen dira.



Laugarren kapituluak berebiziko interesa du zuzenbidearen hizkeraren aldetik. *Linguistique juridique* edo *iurilinguistics* deitu den horretan, itzulzaileen zeregina lantzen da xehe-xehe, terminologia eta fraseologia juridikoaren arabera. Horretarako eremu terminologiko jakin batzuk aztertzen dira testuetan: tutoretza, oinordetza-itunak, aldameneko tituluak eta fraseologia. Horien ekarriak aurretiko igurikimenak baieztatzen ditu, alegia, terminologiaren alorrean desberdintasun kontzeptual zabalak daudela Alemaniako, Suitzako eta Frantziako sistema juridikoen artean. Horren aurrean, itzulzaileen estrategia ere desberdina izan behar da (177. or.): batzuek sorburu-hizkuntza (SH) lehenetsi dute; beste batzuek, berriz, xede-hizkuntza (XH).

Bosgarren kapituluan, egileak arakatu ditu diskurtsoaren beste aldeak, hau da, nola landu dituzten itzulzaileek lege-diskurtsoaren idazkera-konbentzioak. Emaizta azpimarratzeko modukoa da haren hitzetan (211. or.): BGB-ren itzulzaileek testu alemanaren irudi zehatz-zehatza eman nahi dute, hark duen espezifikotasun osoarekin. Horrexegatik egiten diote uko haren hizkera kodetua

frantsesez emateari. Aldiz, xede-hizkuntza helburu duen CCS-ren itzulpenak ez du, ezta hurrik eman ere, zehaztasun gutxiagoko emaitzarik sortzen.

Azken kapitulua da seigarrena, eta, beharbada, etorkizunari begira eta euskaldunon beharretarako egokiena. Honela mintzo zaigu egilea (254. or.):

Itzulpenen zeregina... erabakigarria da egitasmoen arteko desberdintasunak azaltzeko, CCS-ren eta BGB-ren lan-itzulpenen kasuan. Izan ere, zeregin horrek barruratzen du itzulpen bakoitza komunikazio-inguru jakin batean... Zer esanik ez, sorburu-hizkuntzak ere (SH) badu bere esana: BGB-ren kasuan, kodetik oso gertu; CCS-ren kasuan, zabalago¹.

Azken gogoeta gisa, bada zer azpimarratu egun barra-barra dabilen koidazketaren arloan, edota nor itzultzaile, legelaria edo bestelakoa.

Bi langintza nabarmentzen ditu egileak (265. or.): lehena, jurisprudentzia aztertzea, epaileek hizkuntza anitzeko testuak nola interpretatzen dituzten ulertzeko; eta, bigarrena, koidazketaren eraginaz jabetzea, SH-ren testuan eta XH-ren testuan, bi-bion arteko lotura ziurtatzeko.

Hitz gutxitan esateko, aldarri aproposa, bibliografia aberatsa barruratzen duena, euskararen mundu juridiko eta administratiboa kezka-iturri dugun guztiontzat.

¹Itzulpena gurea da. Jatorrizkoa, 254. orrialdean: «La fonction des traductions est déterminante pour expliquer la différence de projet qui sépare nettement la traduction du CCS des quatre traductions du BGB. En effet, cette fonction inscrit chaque traduction dans tout un environnement communicatif... Il faut cependant ajouter que le langage des texts de depart... langage proche du code dans le BGB, système moins rigoureux dans le CCS».

Narciso M. Contreras Izquierdo, *El diccionario de lengua y el conocimiento especializado en la sociedad actual*. Universidad de Jaén. Jaén, 2008. ISBN: 978-84-8439-405-1. 261 or.

*Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Hona hemen, egun hiztegitan pil-pilean dagoen gai bati erreparatu dion liburua, hain zuzen ere, nola azaldu jakite berezietako hitzak hiztegi orokorretan.

Izan ere, hizkuntza desberdinetan nabaritzen da fenomeno hau, XX. mendetik hona; are gehiago XXI. mendetik hona, etenik gabe ari baita hasten eta zabaltzen lexiko bereziaren arloa, zientzia eta teknikaren hitz eta esamolde-etatik hainbat, eremu berezietan ez ezik, bizimodu arruntean ere erabiltzen diren heinean.

Hartara, garaiotako komunikabideak ari dira barreiatzen halako unitate lexikalak, erkidego zientifikotik harago doazenak eta gizartearen ahoan direnak, edozein hizkuntzaren hiztun ikasik behar-beharrezkoak baititu egun.

Contrerasen hitzetan, egoera hori aintzat hartzeko modukoa da, eta aditu askoren arteko elkarlana behar du. Berak hiru azpimarratzen ditu, alegia, lexikografoak, terminologoak eta arloan arloko adituak (XIX. or.).

Contrerasen aburuz, ezinbestekoa da hiru eremu jartzea begipean (XVI. or.): lehena, zientziaren filosofia; bigarrena, terminologia; eta, hirugarrena, hizkera espezializatuen linguistika.

Bide beretik, lehenari so egiten dio aurreneko kapituluaren, gizarte modernoan jakite espezializatuen nondik norakoak azalduz. Kapituluaren mamia dator, etorri ere, hari beretik: ea jakintza zientifiko eta teknikoak sailkatzeko, irizpide eraberekoak erabili behar diren ala ez. Hitz gutxitan esateko, nazioarteko xehetasunak ematen dira, jakintza horien aniztasuna erakusteko, eta, horrekin batera, batxilergo-ikasketak oinarri hartu eta Europar Batasunaren EURODICATOM datu-bankura biltzen diren 48 eremuak aipatzeko.

Hasierako galderak, alabaina, bere horretan dirau, horretara baitator bigarren kapituluaren kontua, alegia, hizkera espezializatuak zer-nolakoak diren

argitzera, gerokoan ere zehaztu ahal izateko nola islatzen diren horiek hiztegi orokorretan.

Bigarren kapituluak darama irakurlea esparru espezializatuaren arlora, hizkera espezializatu horien definizio bila baitoa Contreras. Izenetan ugaria bada hori, izanaren ikuspegitik egilearen iritzia argia da, haien ezaugarriak pragmatikaren aldetik azpimarratzen baititu. Hainbatez, halakoak hizkuntza orokorraren aldakiak dira (35. or.), pragmatikaren bidez eratuak. Areago, ikuspegi komunikatiboa da, haren ustez, haien izaera ondoen zehazten duena. Egin-eginean ere, hiru aldagai dituzte halakoek barne muinetan: gaia, erabiltzaileak eta komunikazio-egoerak.

Hurrengo puntua, agerikoa den moduan, berez dator kio Contrerasi, hots, zertan diren bat hizkuntza orokorra eta hizkera espezializatuak, eta zertan ez. Erkide ikusten ditu hark osagai fonologiko eta morfologikoak; sintaktikoak ere bai, neurri batean bederen; semantikoak bazterrean utzi gabe. Aldendu beharrekoak, gehienetan, lexikoan ikusten ditu, terminologian (36. or.).

Dena den, askiez iruditzen zaizkio Contrerasi aurreko faktore horiek, hizkera espezializatuaren izatea zedarrizatzeko. Hark behin eta berriro azpimarratzen du hizkera orokorraren eta espezializatuaren arteko diferentzia ez dela muinaren aldekoa, mailarena baino (37. or.). Hau da, komunikazioaren eraginak dakar hizkuntza-maila guztietan hautu bat egitea (batik bat, maila lexikoan eta testualean, baita maila morfosintaktikoan ere, fonetika-fonologia alboratu gabe).

Horiek horrela, kapitulu horren bizkarrezurra da hizkera espezializatuaren ezaugarriak egoki zertzea. Terminoa/hitza bikotea gaindituta, eta mailaz maila, badoa Contreras lexiko espezializatuaren luze-zabalak ontzera, fonetika, grafia, morfologia, sorkuntza-prozedurak eta semantika laguntzaile dituela, betiere faktore komunikatiboak ardatz ikusita. Helmuga, argi dago, terminologiak ematen dio.

Terminologiaz denaz bezainbatean, bada lexikografiaren eta terminologiaren arteko zubigintzarako tartea liburuan. Iritzi baikorra du egileak, hain justu ere, euskararen esparruan erabat erabilgarri gerta daitekeena:

Lexikografiak eta terminologiak elkar osatzen dute, egituraz nahiz jardueraz. Lehena semasiologikoa da, eta testuen interpretaziorako soroslea. Bigarrena, aldiz, onomasiologikoa da, eta ekoizpena laguntzen du¹.

Liburuaren hirugarren kapituluak barruratzen du jakite espezializatuaren presentzia hiztegi orokorretan. Aukera desberdinak aztertu ondoren, Contrerasen argiro erakusten du hiztegiak gizartearen islak direla; zehatzago esateko, gizarte honek sortu duen kulturaren islak, eta, hor, zer esanik ez, lexiko espezializatuak


¹Itzulpena gurea da. Jatorrizkoa, 69. orrialdean: «Lexicografía y Terminología se complementan estructural y funcionalmente: la primera es semasiológica y ayuda a la interpretación de textos, mientras que la segunda es onomasiológica y apoya la producción».

egon behar du, hiztun ertainak duen kultura eta informazioaren arabera. Tradizioa eta intuizioa, horra hor berak ikusten dituen bi irizpide nagusiak (99. or.), lexikografiaren aldetik halakoak lantzeko orduan. Horrekin batera ere, definizioa nola eman eta nork eman, horren hizkera zein, hiztegiaren markazioa zer-nolakoa... horien guztien argi-ilunak arretaz aztertzen ditu Contrerasek.

Laugarren kapitulua da azkena, aurretiaz esandakoaren adibide esanguratsua. Horretarako, hainbat hiztegi orokorren hautua egiten du (DRAE; GDLE, CLAVE, DGLE, DEA), gaztelaniaren ikuspegia emateko asmoarekin (133. or.).

Horretan ere, egin asmo duenak gidatu du Contrerasena, hasi atarikoetan esaten denetik eta buka definizioetan, artean markazioa zein, gai zientifikoak eta teknikoak barruratzen diren, nola eman diren horiek hiztegien makroegituran... Horiek oro ikertzen ditu xehe-xehe, gaztelaniarentzat ez ezik, beste hizkuntza batzuentzat ere lagungarri izan daitekeena azalduz.

Ondorioak, labor-zurrean esanda, oso ohargarriak dira. Hasteko, jakite espezializatuen egituratze sistematikorik eza hiztegi orokorretan, halakoak barruratzen baitira tradizioaren edota lexikografoen iritzien arabera. Bestalde, diziplinartekotasunik eza; markazio normalizatuaren beharra; erreferentzia-copusaren heterogeneotasuna; eta, orenen gaintetik, erabiltzailea kontuan hartu beharra.



Proposamenak ere badira liburuaren ondorioetan. Aldera ditzagun hona horietatik batzuk:

- a) Jakite espezializatuen egituraketa eta antolakuntza zehaztea (238. orrialdetik 240.erakoak).
- b) Hiztegirako erreferentzia-corpusaren testuak egoki hautatzea, neurriz jokatuz eta gaiak aintzat hartuz.
- c) Markazio-sistema laburra izatea, arlo nagusietan barruratzuz. Era berean, marka horiek erabilera izan behar dute helburu, testua eta testuingurua eskuragarri eta eskuraerraz izan ditzan erabiltzaileak. Horretan ere, terminologoen lana batera letorke.
- d) Horrek ekarriko luke hiztegien definizioak hobetzea eta aitzinatzea, horrekin ere lan lexikografiko orok behar duen koherentzia galdu gabe.

Aurreko horiek guztiak ez dira garrantzi gabekoak, batez ere euskararen baitan, bertara biltzen baitira prestatze-bidean dagoen terminologia eta lehenetik datorren lexikografia.

Are nabariagoa da hori, beste hizkuntza batzuen lexikografian ikusten direnak ikusita. Aspaldiko kezka da hori gure artean, eta jorratu beharrekoa ere bai, lexikografia akademiko eta arau-emailean nahiz bestelakoetan.

Beldur naiz, ordea, ez ote dugun aukera galduko, *Institut d'Estudis Catalans*ek bere *Diccionari* horren bigarren argitaraldian egun duena egiteko, hau da, arloan arloko hitz tekniko eta zientifiko berriei ateak zabaltzeko, gure gaurko hiztunek arazorik gabe erabil ditzaten halakoak.

Jokoan dago geroa, eta, bistan denez, oraina ere, euskararentzat.

Jean-François Courouau, *Moun lengatge bèl. Les choix linguistiques minoritaires en France (1490-1660). Cahiers d'Humanisme et Renaissance, 86. Libraire DROZ. Geneva, 2008. ISBN: 978-2-600-01189-1. 472 or.*

*Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Titulutik bertatik datorkio jakin-mina liburu honen irakurleari. Egin-eginean ere, gero eta maizago ikusten dira halako gogoetak Frantziako lurralde-eremuan, frantses hizkuntzaren inguruan bizirik dauden beste hizkuntzak ere hortxe baitira.

Courouau-k hiru kapitulu eman dizkio horri, behinola Frantziako erresuma izandako haren «osterantzeko» hizkuntzak barruraturaz, literatura-forma desberdinetan, nahiz nobeletan, nahiz hiztegiatan, nahiz olerkietan edota olerkiak berak erregearekin eta boterearekin zituen harremanetan. Itxiera, ez ahan-tzi, ezin interesgarriagoa da, eskualdeetako eliteek horrekiko izan zuten jokae-ra azaltzen baitu, hizkuntza horien sustapenerako erakundeetan, Okzitaniako Tolosan edo Normandiako Rouenen.

Funtsean, jokoan dagoena zera da: diglosiaren kontzeptutik abiatuta, diglosia horren nondik norakoak deskribatzea, aldi jakin batean.

Egileak berak markatzen du zelai-jokoa. Hasteko, horrek baditu bere mugak (15. or.): lehena, historialarien zordun izatea; orobat, soziolinguistikoe-na; eta, zer esanik ez, eta haren hitzetan, «osterantzeko» hizkuntza horiek ezaupide gutxikoak izatea eta adituak ere ugari ez.

Hasian hasi, osagai erkidean dute horiek euren oinarria, testuan, hain justu ere. Bide estua da, hala ere, hori, eta jausiak dituena, hizkuntza-eremu batetik bestera. Aldiak aldi, aztergai da inprimategiaren hasieratik (1490) Errege Luis XIV.ak aginpidea hartu arteko garaia (1660). Lekuak leku, Frantziako erresuma du helmuga, Biarno eta Nafarroa, gutxitan bada ere, bazter utzi gabe. Olerkia da nagusi; egileak, hala ere, zenbait kasutan, okzitanao, euskara eta bretoaia, hala nahita, uzten ditu sakon ikertu gabe, erlijio-prosaren esparruan. Bistan da hiru hizkuntza horien egoera soziolinguistikoa ez dela berdina, ezta hurrik eman ere.

Askoz pisuzkoagoa da, nire ustez, zertara datorren erlijio-testu sortze hori. Courouau-k bi arrazoitik ikusten du afera (20. or.): lehenengoa, populazio handiaren oldartzea, frantsesaren hedatzearen aurrean; eta, bigarrena, eragin pragmatikoa, hizkuntzaren errealitatea errespetatu behar duena. Helburua ez da euskara goi mailako hizkuntza jaso bihurtzea, ezpada idatzia bera euskararen mailara jaitea (21. or.). Pedagogia eta pragmatika bateratzen dira hemen, irakurketa kolektiboaren bitartez, non jende alfabetatu batzuk diren gehiago analfabetoarentzat testuen ararteko.

Gaiari helduta, Courouau-k lehen kapituluaren deskribatzen du garai horretako hizkuntzen egoera (latina, frantsesa, horren dialektoak, frankoproventzera, okzitanoa, bretoaia, euskara, hebreera eta ijitoera). Euskarari dagokionez, alabaina, informazioa zuzena bada ere, azalekoa da, xehetasun berririk gabekoa. Pentsatzekoa da, nolani ere, horrelako planteamenduetan Lazarragaren testuak izan dezakeen esangura, bete-betean kokatzen baita haren testua, garaiz eta asmoz, liburu honetan aztertzen denaren barruan.

Bada, hala ere, bigarren kapituluaren eta olerkiaren inguruan eskema osoa, Gabonetako noeletan hasten dena, eta hizkuntza horien gramatika eta hiztegiak biltzen dituenak. Aipagarriak, ageri-agerian eta gure artekotan, Oyhenart eta Etxepare, gehienak okzitanoen esparru geografiko zabalekoak badira ere.

Eskema horrek segida dakar hirugarren kapituluaren, horretan azaleratzen baitira olerki bereziak, erregeri zuzenduak. Zergatik hori? Zergatik erabiltzen dira hizkuntza «horiek» Frantziako erresumaren agintari gorenaren aurrean, eta bera goraiatzeko eta laudorioetan jartzeko? Erregeak hirietan egiten zituen sarrera-jaiak dira erakusle nabariak puntu honetan, horietara biltzen baitira, sarri-sarri, olerki-bildumak, frantsesez eta beste hizkuntzetan. Planteatu ere planteatzen du ea euskaraz horrelakorik egon zen, oraingoz horren frogarik ez badago ere.


Nor dira eginkizun horiek babesten dituztenak? Courouau-ren aburuz, hiru talde dira horren sustatzaileak: aristokratak (350. or.), lekuan lekuko aitoren semeak (360. or.), parlamentuko kideak (363. or.), eta, esan gabe bada ere, hirietako boterea duten agintariak (368. or.).

Gizabanakoak gutxietsi gabe, argi dago, Courouau-ren iritziak, erresumaren lurraldeetako literatura-bizitza erakundeetan antolatzen dela. Erakunde horiek akademikoak dira. Bi aipatzen ditu Courouau-k: bata, Tolosako erretrorika ikastegia, Lore Jokoen antolatzailea eta okzitanoaren sostengatzailea; eta, bestea, Roueneko Puga, normandoaren aldetik.

Ondorioetan ere, azpimarragarriak:

- a) Villiers-Cotterêts ordenantzak sorrarazten du halako hizkuntza politika, hala nahitako aukerak dituenak, hizkuntzaren eta gizartearen artean (417. or.).

- b) Frantziako monarkiak pragmatismoaren alde egiten du. Kontuan hartzen ditu eskualdeetako eliteak eta horiek egin duten apustua hizkuntza idatzia, gizartearen barruko igoera dakarrena, frantsesa izan dadin; berbaz, aldiz, eskualdeko hizkuntzetan bizi daiteke. Hizkuntzen mailakatzea hortxe dago (418. or.).
- c) Hori gorabehera, hizkuntza horien literatura loratzen da. Gaiak, berriz, mugatuak dira: teologia, filosofia, zuzenbidea, zientzia, nobela eta abarrekoak horretatik at daude. Inprimatzen direnek zabalkundea badute. Bigarren mailakoak izanagatik ere, badute euren esanahia (419. or.).
- d) Elite horiek eskualdeetako hizkuntzak behar dituzte euren eguneroko bizitzan. Bada halako estekadura, halako lotunea, giza seme-alabak eta hizkuntza bat egiten dituen (421. or.).
- e) Erregeak ez du horretan interes berezirik. Aldi berean, horrelako hizkuntzetan idazten direnek ez dute inolako modurik literatura-ibilbidea egiteko, latin edo frantsesetik kanpo. Salbuespenak, Tolosa/



Rouen egoera diglosikoa kudeatzen dutenak, Godolin eta Ferrand moduko idazleen bidez.

- f) Idazle horiek arras argi idazten dute zuzenbidearen, erregeren edo frantses letren hizkuntzan, baina beste hizkera batzuk ere erabili nahi dituzte. Hala bete nahi dute lehen esandako hizkuntzen arteko mailakatzeko berezkoa, gizarteari dagokiona.

Labur-zurrean, bada hor aukera etiko eta estetiko, munduaren ikuspegia, dela ordena, dela justizia, dela literatura, dela bizitza. Horixe da, izan ere, hizkuntza gutxituaren aldeko aukera, idazle horientzat adierazi eta laburbiltzen duena.

Bibliografia eta aurkibideak ere liburuaren eranskin erabilgarriak dira, euskaldunontzat zeresan ugari duen liburu honen barruan.

Rudolf P.G. de Rijk, *Standard Basque: a progressive grammar* /. -- Cambridge (Massachusetts): MIT Press, 2008-Libk. 1 : map ; 24 cm. -- (Current studies in linguistics ; 44)

*Patxi Goenaga,
Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea*

Hamaika lan jaso ditu euskalaritzak Rudolf de Rijk-en eskutik, euskal sintaxiari eta morfologiari dagozkionak batez ere. Erlatiboei buruzko haren MIT-ko tesia, *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, adibidez, 1972an idatzia, aitzindari izan zen. Hitz ordenari buruzko lanak ere eskuz esku ibili ziren eta dabilta. Lan horiek eta beste batzuk ASJU-k eman zituen argitara (Rudolf P. G. de Rijk, 1998, *De Lingua Vasconum: Selected Writings*. Supplements of the Anuario del Seminario de Filologia Vasca «Julio de Urquijo», n^o XLIII. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao). Hain zuzen, artikulu bilduma eder honetako hainbat lanen oihartzuna aurkituko du irakurleak gramatika honetan. Oihartzuna ez ezik, gai beren formulazio berriak ere bai. Aipaturiko bilduma haren sarreran hizkuntzalari holandarrak berak aitortzen duenez,

«this work cannot substitute in any way for a comprehensive Basque grammar. Providing such a text is an arduous task I have been wrestling with for some time, and which, *Jaungoikoa lagun*, I hope to complete in due course».

Hain zuzen, aipatutako gramatika zabal hauxe da hemen hizpide duguna. Zoritxarrez, lana osorik burutzeko astirik ez zuen izan, 2003an utzi baikintuen. De Rijk-ek hogeita hamar urtetik gora eskaini zizkion lan honi. Hala ere, amaitu gabe utzi behar izan zuen. Eta hala, «comprehensive» barik «progressive» gisa eskaini zigun. Gizonaren apaltasuna! Zeren, amaitu gabe utzitako atal batzuk eta lits bakan batzuk gorabehera, liburu bikain eta egiazki erabateko gertatzen den honek harro eraman baitzezakeen izenburuan «comprehensive» adjektiboa ere.

Gramatika zabala da eta edukia modu mailakatuan eta aleka-aleka bezala eskaintzen zaigu. P. Salaburuk hitzaurrean dioen bezala, de Rijk, arazo bat aurkeztu ondoren, apurka-apurka, zirkulu kontzentrikoetan bezala lan eginez, hizkuntza arazo bakoitzaren sakonera iristen da.

Gramatika honek gaurko euskara batua du aztergai, baina euskalkiei egiten zaizkien erreferentziak, edo hizkuntzaren historiari egiten zaizkionak,

hizkuntza tipologiari dagozkionak, gure testu zaharretako aipamenak... nonahi aurkituko ditu irakurleak. Horrela, euskaraz ongi dakien baina hizkuntzaren ezagutza sakondu eta ezagutza hori osatu nahi duenak ere informazio izugarria bil dezake orrialde hauetan zehar, informazio zabala eta sakona. Hizkuntzalari zorrotz eta jakintsu baten ia bizi osoko lana biltzen baita liburu honetan.

1. kapituluaren sarrera bat eskaintzen da, euskalkien eta euskara batuaren aurkezpena egiteko baliatzen dena. Ahoskerari eta fonetika-fonologiari buruzko saio labur bat ere ematen da. Bestalde, kapitulu guztietan egingo den bezala, hiztegiari buruzko atala eta itzulpen ariketak aurkituko ditu irakurleak.

2., 3. eta 4. kapituluetan, Izen Sintagmaren osagaiak aztertzen dira: numeralak eta zatikiak, kasu markak, mugatuaren eta mugagabearen izaera eta erabilera, leku-denborazko kasuak eta egileak «location nouns» deitzen dituenak (*atze, aurre, ondo, oste, gain, azpi* eta holakoak). *Location noun* hauek eta postposizioak bereizten ditu de Rijk-ek.


Izenlagunen arazoaz luze dihardu 5. atalak. Gai hau ere lehendik landua zuen egileak (ik. de Rijk, 1993, «Basque Hospitality and the Suffix –ko». *De Lingua Vasconum: Selected Writings*. 377-390). Aspalditik onartua da gure artean direlako izenlagun hauek, azpian, beste Postposizio Sintagma batzuk dituztela, inesiboa bereziki. De Rijk-ek urrunago darama kontua, zeren nolokotasuna adierazten duten izenlagunen azpian ere (*bihotzaldi handiko poeta* bezalakoetan) ezabatutako postposizio bat dugula aldarrikatzen baitu eta postposizio hori, gainera, soziatiboa dela, hots: *bihotzaldi handiekin –ko poeta*.

–EN eta –KO, K. Mitxelenaren ildotik, berez eratorpen tresna direla onartzen du egileak. Proposamen honen bitxitasunaz konturatzen da, hala ere, zeren benetan eratorpen atzizki direnek ez baitute sintagmen gainean lan egiten, hitzen gainean baizik. Kontua da egilea ez dela geratzen deskribapen hutsean, hipotesiak eta historiari buruzko azalpenak nonahi ageri dira liburuan. Noizbehinka, ohar historiko-bibliografikoak txertatzen ditu testuan. Kasu honetan adibidez, P. Lhanderen hiztegitik hasi eta gaur arte egin diren proposamenak aurkezten dizkigu de Rijk-ek. Bide batez, holako oharrak ugariago ez izatea pena da.

Aditzaren azterketari kapitulu ugari eskaintzen zaizkio. Seigarren kapituluaren ekiten dio egileak lan horri, eta 7-10 bitartekoetan jarraitzen: intransitiboak lehenbizi, transitiboak gero. Partikula modalak ere hemen aztertzen dira. Eta gaiak horretara eramanda edo, hitz ordena kontuak, topiko/foko eta holakoek ere hemen hartzen dute leku.

Ergatiboaz, transitibotasunaz eta, oro har, aditzaren sailkapenari eskaintzen dizkion atalak bikainak dira, 12. kapituluak, esaterako.

Aditz modalak (NAHI, BEHAR, GOGO ...) eta hauen osagarri diren perpau-sak aztertzen dira 14. atalean. 16.enean, aditz arazleez dihardu.



Perpauus elkarketak ere liburuaren zati handi bat hartzen du: baldintza perpauusak (17. atalean), perpauus osagarriak, galderazkoak nahiz adierazpenzkoak (18. enean). Morfologiatik abiatu eta syntaxian amaitu. Perpauusen osaerari ez ezik, egileak garrantzi handia ematen die ordena kontuei. Hitz ordena izan da, hain zuzen, de Rijk-en lanetan errepikakorrenetarikoa.

Izenaren osagarri diren perpauusak direla eta, -(E)LA perpauus osagarria ezin daiteke agertu izen bati atxikia, -KO atzizkia tarteko ez bada. Atzizki horren aurrean desadostasuna omen dago hitzunen artean: batzuentzat [...-ELA] Izen Sintagma litzateke eta, horrenbestez, genitiboaren marka hartuko omen luke (-(E)LAREN) (461. or.). Onartzen du, hala ere, euskara estandarrak -ELAKO-ren bidea hartu duela. Gauzak horrela, -ELA-k postposizio izaera izango luke. Honen alde omen dator etimologia (-ELA, azken batean, adlatiboaren postposizio bera izango litzateke: hala zioen Lafittek, 1944: 400). Sintaxi teoria ere ikuspegi honen aldeko gertatzen da, Emonds-en arabera, konplementa-

tzailak adposiziotzat har baldin badaitezke. (ik. J. Emonds, 1985, *A Unified Theory of Syntactic Categories*. Foris, Dordrecht)

Subjunktiboaz eta aginteraz dihardute 21. atalak eta 22.ak. Oraingoan ere, nola ez, gauza jakingarri asko aurkituko ditu irakurleak. Esaterako, beste gramatiketan (*Orotariko Euskal Hiztegia* bai, jakina) lekurik izaten ez duen «monitive» delako *gero*-ren erabilera («ez niri gero Donostia ukitu» bezalakoetan ageri dena) aipatuko nuke. Honek erakusten du de Rijk-en gramatikako euskara estandarra zein hurbil dabilen ahozko euskaratik. Hurbiltasun horixe erakusten digute beste zenbait esapidek ere. Adibidez, hor dugu *auskalo* bezalako elementu bat, EA, AL, OTE eta antzekoen parean (449-450. orr.).

Beste kapitulu nagusietako bat da 19.a, perpaus erlatiboetako eskainitakoa. Egilearen 1972ko lana aipatu dugu hasieran. Gramatika honetan perpaus hauei eskaintzen zaien atala ere azpimarragarria da. Esan nezake liburuaren atalik biribilena berau dela. Hogeita hamar orrialdetan, euskal erlatiboaren ikuspegi zabala eta zehatza eskaintzen zaio irakurleari. Adibide ugari, xeheki aztertuak, eta euskal erlatiboaren gorabeherak argiro eskainiak. Nabardurarik txikienak ere arreta handiz tratatuak. Hori gertatzen da oraingoan ere. Ikus esaterako, -TXO atzizkiak erlatiboetan duen egitekoaz dioena (485-486. orr.). Beste gramatiketan nekez aurkitzen da holako erreferentziarik. Argiro azaltzen du, halaber, [... -T(Z)EKO] izen-osagarriaren eta [... -T(Z)EKO] erlatibo jokatu gabearen arteko bereizketa: hitz gutxitan informazio aberatsa.

Ondoren datoz denbora perpaus adberbialak (20. kapitulua), kausazkoak, kontzesiboak (23. atalean) eta konparaziozkoak (25.a).

De Rijk-ek argitaratzeko prest utzi zituen kapituluetak azkena 27.a dugu, «Kasu instrumentalaren erabilera» izenburua duena. Instrumentalaren erabilerak euskaraz, jakina denez, ñabardura asko ditu. Euskalki guztiek ez dute berdin jokatzeko, mugatzaileak edo mugatzaileak ezak zer betekizun duen ere ez dago argi. Kontu hauek aski misterioitsu gertatzen dira gramatikariarentzat, baina egilea erabilera hauek denak biltzen eta aztertzen saiatu da kapitulu honetan, beste inon ez bezalako hedaduraz eta sakontasunez aztertu ere.

Berak prest utzitako kapitulu hauetan denetan adibideak ugari dira, ongi aukeratuak, bakoitza bere ingeleseko itzulpenarekin. Holako lanetan ohikoak izan ohi diren glosak, aldiz, morfemaz morfemako irakurketan laguntzeko jarri ohi direnak, ez daude testuan bertan tartekaturik, bigarren atal batean baizik. Lan hau Armand de Coene hizkuntzalari holandarrak prestatua da, de Rijk-ek berak, hil aurretioxan, hala eskatuta. Dударик gabe, lan luzea eta nekeza, baina oso txukun egina eta irakurle/ikasle ez-euskaldunak eskertuko duena.

Glosa hauez gainera, holako lanetan ohikoak diren aurkibideak ditugu. Gai aurkibidea aipatu nahi nuke bereziki. Honek erakusten du benetan zein den liburu honetan biltzen diren gaien ugaritasuna. Gai zerrenda zabal hau ikusita, berehala ohartzen gara euskaraz ikasi nahi duenarentzako lana baino

zerbait sakonago eta trinkoagoa dela gramatika hau. Hasieran, sarrera-ikastaro xume zena euskararen deskribapen zabal eta sendoa bihurtu zitzaion de Rijk maisuari. Azken batean, bere bizi osoko ikerketaren emaitza dotorea eta ederra dugu liburu hau.

Liburu amaitu orduko joan zitzaigun gure hizkuntzalaria. Baina utzi zizkigun, azken ukituen beharrean, beste atal batzuk ere. Sei kapitulu dira: 30. kapitulua juntadurari buruzkoa da, aski taxutua. 29. kapituluan txertatua ageri da, berriz, perpaus osagarri jokatugabeen laburbilduma bat, zoritxarrez laburregia. Gainerako gaiak hitz eraketari buruzkoak, izenordain mugagabeen edo adizki alokutiboen eta abarren ingurukoak dira. Erabat osatu gabe geratu den lan baten lekuko gisa eskaini zaizkigula esango nuke.

Eta azken ohar bat, amaitzeko. Holako gramatika liburu mardula (1300 orrialdetik gorakoa) esku artean hartu eta ohiko moduan begiratzen hasiz gero, atal bakoitzak gaiaren aldetik batasuna izatea espero izatekoa da. Alegia, atal batek «Relative clauses» izenburua badu, pentsatzekoa da barnean erlatiboak baino ez ditugula aurkituko. Baina ez. Kasu honetan, adibidez, erlatiboen gaia amaitu ostean, -OK artikulua hurbilari eskainitako atal bat dator, eta beste bat ondoren, -DUN atzizkiari buruzkoa. Gai desberdinen metaketa hau areagotu egiten da beste kapituluetan. Batzuetan kapituluaren izenburuan bertan, berez ikusteko zuzenik ez duten gaiak biltzen dira: 17. kapituluan, adibidez, baldintzakoak eta prolatiboa, biak agertzen dira kapituluaren buruan bertan. Ikastaroen harira sortutako lan bat izanik, ulertzen da ikasgaiz ikasgai antolatzea material desberdinak: sintaxi gai bat hemendik, beste bat gero, morfologia apur bat, hiztegia eta ariketak. Baina ikastaro izaeratik harago joan da gramatika hau, kontsulta liburu izatera iristeraino, eta ez nolanhikoa. Horregatik, gai desberdinak atal berean biltze honek, hasieran, irakurlea noraezean bezala utzi dezake. Baina de Rijk ezagutu zuenak ongi daki haren zorrotasunaren eta zehaztasunaren berri. Gaiak modu jakin horretan antolatzeko arrazoia, segururik, liburuaren hasierako asmoan bilatu beharko da, ikasmaterial izaeran, hain zuzen. Dena dela, arreta pixka bat jarritz gero, berehala konturatzen da irakurlea gai-biltze hori hutsa baino gehiago huskeria dela, irakurle erneak erraz gaindi dezakeena. Gai aurkibide bikaina ere hor baita ukagu.

Liburu honetako orrialdeetan urteetako lana joan da pausatzen eta orain euskalariok, hizkuntzalariok, eta munduan zehar euskara ikasteko grina duen jende askok hemen izango du lan bikain hau eskura. Liburu postumo honen kaleratzean parte izan duten guztiek, Virginia de Rijk, hizkuntzalariaren alargunak, Armand de Coene-k eta Fleur Veraart-ek, besteak beste, eta orobat Cornell-eko, Leiden-eko eta Euskal Herriko Unibertsitateko hizkuntzalariak eta unibertsitateek berek, zerbitzu ezin estimagarriagoa egin diote euskalaritzari liburu bikain honekin. Liburuaren atarikoan Lazkao Txikiren 1965eko bertsoan jasotzen den eskaria bete du de Rijk maisuak:

«Zabaldu zazu emengo berri / naiz txarra eta naiz ona. Esan izkuntza zar bat badala / ia galduan dagona».

***EUSKERA* AGERKARIAREN
EDUKIAK**

EUSKERA AGERKARIAREN EDUKIAK

Euskaltzaindiaren Argitalpen Batzordearen erabakiz, 2007-XI-29an, *Euskera* Agerkari ofiziala beregituratzeko ari da. Berregituratze horren arabera, *Euskera* Agerkariaren hiru zenbaki argitaratuko dira, urtero-urtero, aurrerantzean. Horietatik lehena eta hirugarrena izango dira Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa bilduko dituztenak; bigarrenak, aldiz, ikerketa-lanak eta bestelakoak jasoko ditu beren beregi.

Jarraiko orrialdeotan zehazten da zein izango diren gai lehenetsiak eta irizpideak urteroko bigarren zenbaki hori osatzeko. Esan gabe doa urrats esanguratsua izan daitekeela honako hau, *Euskera* agerkaria eraberritzeko prozesuan, Akademia osatzen dugun guztion parte-hartze zabala tartean dela. Horrexegatik, hain zuzen ere, dei berezia egiten diet euskaltzain guztiei eta euskalgintzaren munduan ari direnei, zeinek bere esparruan lantzen dituen gaien emaitzak Euskaltzaindira bidal ditzan, aintzakotzat hartuak izango baitira horiek, gerora datozen irizpideak betez gero.

Joan bitez, aldez aurretik, bide berri honetan parte hartuko duten guzti-ontzat, nire eskerrik zinezkoenak.

Bilbo, 2008-III-11

*Andres Urrutia,
Argitalpen burua*

* * *

TESTUAK AURKEZTEKO ETA ARGITARATZEKO IRIZPIDEAK

1. *Euskera* Agerkariaren esparruak

Euskera Euskaltzaindiaren Agerkari ofiziala da. Bi motako zenbakiak argitaratzen ditu: lehenik eta behin, Instituzioaren kide berrien sarrera-hitzaldiak, erakundearen lanak, agiriak, Hizkuntza-ARAUAK, *Iker* edo *Jagon* Saileko Jardunaldiak eta antzekoak jasotzen dituztenak, eta, bigarrenik, Euskaltzaindiaren intereseko jakintza esparruetako ikerketa-artikuluak, liburu-aipamenak eta antzekoak. Ondoren zehazten diren irizpideak soilik bigarren motako zenbakietako

ikerketa-artikulu eta liburu-aipamenei dagozkie, eta bete beharrekoak dira ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak aintzat har daitezen argitaratze-bidean. Gainerakoetan, bete beharrekoak dira Euskaltzaindiak ezarritako baldintzak; ikus «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003) 1115-1124.

Hauxek dira *Euskera* Agerkarian jorra daitezkeen zenbait gai:

- Euskal Filologia
- Hizkuntzalaritza orokorra
- Gramatika
- Dialektologia
- Lexikografia / Lexikologia
- Literatura
- Toponimia / Onomastika
- Fonetika eta Fonologia
- Semantika eta Pragmatika
- Hizkuntzaren historia
- Hizkuntzaren normatibizazioa
- Hizkuntzaren normalizazioa
- Soziolinguistika
- Teknologia berriak eta hizkuntza
- Iurilinguistika eta hizkuntza-zuzenbidea
- Itzulpengintza
- Zientzia-arlo desberdinetako euskara teknikoak.

Orobat, aintzat hartuko dira beste hainbat esparrutako diziplinak, euskarekin zerikusirik duten neurrian.

Ikerketa-artikulu, liburu-aipamen eta antzekoen proposamenak Argitalpen Buruari zuzenduko zaizkio, ondoko helbidera:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.
 Argitalpen Burua
 Plaza Barria, 15
 48005 BILBO

2. Hizkuntzak

Ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen den edozein hizkuntzatan idatzita izan daitezke, baina, gehienbat, euskaraz idatzitakoak hobetsiko dira. Orobat, egilea edozein izan

daiteke, baina euskaltzainen (oso, ohorezko, urgazle) eta Euskaltzaindiko batzordekideen ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak hobetsiko dira.

3. Luzera

Bi motako testuak argitaratuko dira: ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak. Lehenek ez dute luzera jakinik, baina oro har ez dute izango 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago (15-30 orrialde). Erreseinak bi motakoak izango dira: 3 orrialdekoak (6.000 karaktere) edo 5 orrialdekoak (10.000 karaktere), salbuespenak bazterteke.

4. Laburpenak

Ikerketa-artikuluarekin batera haren laburpena eta artikuluaren hitz-gakoak (gehenez ere, sei) entregatuko dira, artikulua idatzia den hizkuntzan.

5. Onarpena

Ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak onartzea *Euskera* Agerkariarekiko azpibatzaile edo kasuan kasu honek izendatzen duenari dagokio. Artikulua onartzerakoan egileari oztopo, akats edo aldabeharren zerrenda emango zaio. Egileak bere adostasuna jasotzen duen agiria sinatuko du. Hortik aurrera ez da muntazko aldaketa edo zuzenketarik onartuko ez egilearen aldetik ez argitaratzailearen aldetik.

6. Epeak eta baldintzak

Ikerketa-artikuluak eta liburu-aipamenak urtean zehar aurkeztuko dira, urtea bukatu arte eta hurrengo urteko lehen seihilekoan argitaratzekotan.

Ikerketa-artikuluek eta liburu-aipamenek bete beharko dituzte irizpide hauek eta aurretiaz Euskaltzaindiak ezarritako baldintzak; ikus «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003) 1115-1124.

Ezarritako epeak eta aipatu baldintzak ez betetzeak artikuluaren argitalpena bertan behera uztea ekar liezaioke autoreari, argitaratzailearen erabakiz.

7. Artikuluaren euskarriak

Artikuluak ordenagailu formatuan aurkeztuko dira, bertsio inprimatu bat erantsiz. Euskal Herrian arruntak diren testu-prozesadoreak erabiliko dira.

8. Erreferentziak eta oharrak

Ohar gehiegikeriak mugatzeko ahaleginak hobetsiko dira. Erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikuluaren bukaeran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi, 1729) edo Mitxelena (1961, 123). Edozein arrazoiengatik mota horretakoak erabiltzea baztertzen denean ere, eman bitez erreferentzia zehatzak, *op. cit.* edo *ibidem* bezalakoak saihestuz eta erreferentzia osoak bibliografian eskainirik.

9. Bibliografia

Bibliografia artikuluaren bukaeran emango da, oinarritzko eredu honi segituz:

Larramendi, M. 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*, Antonio Joseph Villargordo Alcaráz, Salamanca.

Mitxelena, K. 1959, «Euskal-itzak zein diren», *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J. 1967, «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los “*Refranes y sentencias en vascuence*” de 1596», *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R. 1975, «Indices personnels n’exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*, Société de linguistique de Paris, Paris, 331-337.

Egileak artikuluaren bibliografia oinarritzko eredu horren arabera antolatuko du. Kasuan kasu izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

10. Ordainketak

Agindu-onartu ikerketa-artikulu edota liburu-aipamen guztiak ordainduko dira, Argitalpen Batzordeak, kasuan kasu, erabakitzen dituen tarifen arabera, behin ikerketa-artikulu horren argitalpenerako eskubideak Euskaltzaindiari lagatzen dizkiola adierazten duen agiria sinatu ondoren.

